

Adinekoei lagun egiteko jende bila Baztan aldean

«Eman hartzaile izateko». Lelo horrekin bildu dute Bidelagun Elkarteko ordezkariak euren idea. Manera horretan pertsona adinduei lagun egiteko boluntarioen bila hasi dira. Izan ere, gaur egun xaharrekin lan egiten duten zerbitzuek ez baitute betetzen adinekoei dituzten behar guztiak.



“Kontuan hartu behar da xaharra ez dela haur bat, ondutako pertsona bat baizik, eta pertsona bat bezala tratatu behar dela”

45



3 Elkarrizketa: Imanol Retegi, zeliakoendako gozogile baztandarra

Zeliakoak zereal batzuei alergia dieten pertsonak dira, ogia eta pastelak ezin dituzte jan, adibidez. Imanolek, ordea, irin berexi batekin hoientzako moduko gozoak egiten ditu.

6 Iritzia: Alkoholemia kontrola ehiztariei?

Azken boladan ehiztariei alkoholaren proba egiten hasiko ote diren zurrumurrua ibilki da ahoz-ahoz. Ehiztari batzuei eskatu diegu horren gaineko iritzia.

29 Kirolak: Nafarroako aizkolari txapelketaren finala

Ortziralean jokatu da, Donezteboko ferietan egiten den saioan. Mikel Mindegiak, 50 urterekin, seigarren txapela jantzen ahal du. Jubenil mailako Euskal Herriko txapelketaren finalean, berriz, Asier Larretxea arraioztarra ariko da.

DONEZTEBE eta LESAKAKO FERIAK:

Doneztebeakoak azaroaren 19an eta Lesakakoak abenduaren 2an burutuko dira. Informazio gehiago erdiko koadernilloan.

8 TTAPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



MUEBLES A METS

mobleak orokorrean

Alkalaga poligonoa, Sastrin karrika • Lesaka
Tfnua: 948 630 537 • Fax: 948 631 443



Sarrera Beratik da



Betiko

Ordoki Industrialdea • ARIZKUN
Tfnua. eta faxa: (948) 45 32 59

4 arrazoi on PVC jartzeko



Kalefakzioan
% 35a
ahorratzen
duzu



ISOLAMENDUA



Ez du
pintura
beharrik



MANTENU ERREXA



Ur eta
haizeaz
babesteko,
baita ere
solnueatlik



HERMETIKOTASUNA



Denborak
ez du alda-
razten



IRAUNKORTASUNA

Etxe berrietan eta
zaharretan. Edozein
itxiera, kaleria,
leiho, atari...

Eskatu aurrekontua
konpromexurik gabe



BETIKON kolore
ugari ditugu,
baita egur
koloreak ere
(haritza, kaoba,
pinua...).
Edozein
etxe estilora
egokitzen
direnak.



Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe 948 453 259 telefonoan edo bisita gaitzazu

DATUAK.....

❖ **Zeliakoak:** Zerealei alergia dieten pertsonak. Arroza eta artoa bakarrik jaten ahal dute. Ez garirik, ez garagarrik... Ogia ere berexia erosi behar izaten dute.

❖ **Inguru honetan ez dago eritasun hau duen jende aunitzik.** «5 edo 6 familia» Imanolek erran digunez.

❖ **Imanol Retegi elizondarrrak 6 urte daramatza familia-ko goxotegian lanean, eta hasieratik ikasi zuen zeliakoendako goxoak egiten.** Izan ere, bere neskalaguna zeliakoa baita.

❖ **Gaur egun pastak eta tartak saltzen ditu astero-astero Iruñean, eta hantxe kafetegi berexi bat jartzeko asmoa omen du.**

TESTUA:
ASIER GOGORTZA
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA

👉 **Imanol RETEGI** *Elizondoko Retegi gozotegikoa*

“Zeliakoendako gozokiak egiten ditugun bakarrak gara Nafarroan”

EZ DA BATERE ERITASUNEZAGUNA ZELIAKIA. HITZ GUTTITAN ERRANEN ZENUKE ZELIAKO IZATEA ZER DEN?

Zeliakoak *glutenari* alergia dioten pertsonak dira. Gari, olo, garagar eta zekalearen proteina da glutena. Arroza eta artoa dira glutenik ez duten zereal bakarrak.

Zeliako batek *glutenajaten baldin* badu heste meharreko mukosa desagertzen zaio, eta gorputzak ez dio deus ere xurgatzen. Horrelakoetan, sintoma hauek agertzen ahal zaizkio: beheitikoa, goitika botatzeko gogoia, anemia, sabela hazitzea...


GURASOETATIK SEMEALABETARA PASATZEN DA ERITASUN HAU?

Bai, familiatik etortzen da, bai.

ZUK ZELIAKOENTZAT TARTA ETA PASTA BEREZIAK EGITEN DITUZU. NOLA BURURATU ZITZAIZUN HORRETAN HASTEAK?

Nere neskalaguna zeliakoa da, ezin du irina duen deus ere jan, eta horregatik hasi nintzen beretzat gauzak egiten: pastak, teilak, tartak... berari gustatu zitzaizkion, eta beranduago saltzen jartzea erabaki nuen.

Goxo hauek ikustean harrituak gelditzen dira zeliakoak, ezin du-



«Irin berexia erabiltzen dut goxoak egiteko» dio Imanolek.

te sinetsi, pastakedo tartak ez dituztelako behinere jan, eta gustora erosten dute.

ETA IRINIK GABE NOLA EGITEN DITUZU?

Nik irin berexia erabiltzen dut, glutenik gabekoa. Gariaren almidoia, gluten guzua kendu zaion gari-irina da. Arrontarina da nik erabiltzen dudana, eta horrekin nahiko zaila da

lan egitea. Masa abudo hausten da, ez duelako indarririk. Diotenez, gluten guzua ez zaio kentzen, %0,2 inguru izaten omen du oraindik, baina horrek ez die normalean kalterik egiten. Nere neskalagunari bederen ez.

OGIA ERE EZIN DUTE JAN ORDUAN?

Ez, ez. Beste ogi klase bat jaten dute, horrelako motz-motz batzuk, eta arront gogorak. Gainera garestiak izaten dira: bi ogi koxkorrek 300 pezeta balio dute.

Bertze jateko guzirekin ere gauza bera,

normalak baino bi aldiz gehiago balio baitu denak.

INGURU HONETAN ZELIAKO AUNITZ DAGO?

Ez, nahiko gutti dira, 5-6 familia. Lekarozen badago bat, Elizondon 3 edo 4, Donezteben eta Leitizan bakarren bat...

Gaur egun hemen baino gehiago Iruñean saltzen dut. Astean behin banaketa egiten dut eta aldizka bi aldiz ere bai. Nik uste, Nafarroan ez den izanen bertze goxotegirik zeliakoendako tartak eta teilak egiten dituenak.

❖ **“Zeliako batek glutenari jaten baldin badu heste meharreko mukosa desagertzen zaio eta gorputzak ez dio deus ere xurgatzen. Sintomak beheitikoa, anemia etab. dira.”**



Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko biztanleen %21a 65 urtetik goitiko da.

BIDELAGUN



Adinekoei lagun egiteko boluntarioak

Bidelagun boluntario taldea sortu da Baztanen. Pertsona adinduei denbora librean lagun egiteko eskaintzen dute euren burua, bai zahar-etxeetan bai etxe partikularretan ere. Hasiera batean bi erizain, bi apez eta jubilatuen baten ekimena izan zen Bidelagun, baina orain, azaroaren 21a bitarte, boluntario gehiago biltzeko kanpaina ireki dute.

Baztan Urdazubi eta Zugarramurdira mugatu dute euren ahalegina, inguru hau arras zaharra baita adinean. 8.500 biztanle inguru daude hiru herri hoietan, eta hoietatik 1.800 baino gehiago dira 65 urtetik goitikoak, biztanleen %21a, alegia.

TESTUA: ASIER GOGORTZA

ARGAZKIAK: JOXEMANUEL IRIGOIEN

Datu hauek ikusiz, ez da pentsatu behar zahar hoiek guzietan laguntza beharrezko daudenean, baina egoera orokorra zein den ikusteko balio dute berderen. Egoera horrekin kezkatua agertu zaigu Bidelagun taldearen sortzaileetako bat, Isidro Hergedas, Iruritako apezpea. Berekin batera, Javier Azpiroz apezpea, Bernardette Mihura eta Ana Kariñena erizainak eta Maria Jesus Arregi jubilatua daude Bidelagun boluntario taldearen gibelean. Egoerarekin kezkatuta, aurtengo otsaila aldera hasi ziren nolabaiteko laguntza-taldea sortu behar zela pentsatzen. «Bortzek ere» dio Isidrok «nolabaiteko lotura dugu jende xaha-

rrarekin, eta euren beharrak zein diren ongi dakigu».

Hiru moduko laguntza emateko asmoarekin sortu da Bidelagun: batetik, etxetik ateri ezinean daudenei lagun egiteko –solas egin, kartatan jokatu...–. Bertzetik, denbora libreko iharduerak prestatzeko, eta azkenik, gaixoak zaintzen aritzen diren pertsoneri erreleboa emateko. Izan ere, zaindariak aunitan adineko jendea izaten direnez, beraie laguntza pixko bat ematea ez dago soberan.

Baina bertzelako laguntzak ere emanen ditu Bidelagun taldeak. Adibidez, erdaraz ongi moldatzen ez diren xaharrei gestio ttikiak egiteko eskaintzen dute euren burua, eta bertze boluntario batzuek autoa jarriko dute Iruñera bidaia bat edo bertze egiteko.

Adinekoen zaintzan dauden hutsuneak betetzeko sortu da

Bidelagun ez da bertze inongo elkarteren ordeko izateko jaioa. Izan ere, adineko pertsonekin lan egiten duten erakundeak egon badaude lehendikere: Udalen etxez- etxe-ko zerbitzua, zahar-etxeak... Dena den, langile finak izanagatik, gaur egun ez dira zahar guzieren beharrak asetzera ailegatu. Han etahemen dauden hutsuneak beteko ditu, beraz, Bidelagun boluntario taldeak. Hirietan-eta horrelako esperientziak aitzinera ateri izan dira, baina herri ttiki- tanekimen berritzailea da hau.

Boluntarioak biltzeko kanpaina

Boluntarioak biltzeko kanpaina, erran bezala, azaroaren 21a arte dago zabalik, baina ez da hor akituko epea, gero ere norbaitek bere laguntza eskaini nahi baldin badu gustora hartuko baitute Bidelagunekoek: «guk edozein boluntario onartzen dugu: etxe-koandreak, gazteak, jubila- tuak... batez ere talde hoietara dago zuzendua gure kanpaina. Jendea ari da intere- satzen, galdegitera etortzen dira batzuk...», erran digu Isi- drok. Dena den, orain arte 10- 15 lagun bakarrik hurbildu omen da boluntario gisa aur- kezteko, «jendea izituegiten baita».

Hala ere, Bide- lagunekoek argi utzi nahi dute boluntarioei ez zaie- la egin nahi ez du- ten deus ere egi- ten behartuko. Ho- rrela, boluntario- ek beurek erabaki behar dute zenba- teko laguntza eman nahi duten: «astean ordu bat baldin bada, ordu bat, edo hama- bortzero ordu bat... berdin da».

“Eman, hartzaile izateko”

Boluntario talde kokor bat osatzen dutenean, zahar- etxe- ei eskainiko diete lehenik eta behin euren laguntza, «baina gero familiei ere eskaintzea

BIZTANLEAK ADINEN ARABERA

■ Baztan-Zugarramurdi-Urdazubi

0-14 urte	14-25 urte	25-44 urte	45-64 urte	65-74 urte	75 urtetik goiti
1.106	1.213	2.376	1.954	961	863

• **PORTZENTAIA ALTUA:** 65 urte baino gehiago dituzten pertsonak %21a dira, beraz.

■ 65 urtetik goitikoak

65-69 urte	70-74 urte	75-79 urte	80-84 urte	85-89 urte	90etik goiti
474	380	375	263	92	34

• **ADINEKO AUNITZ ETXEAN:** 200 zahar inguru ez da etxetik ateratzen gaur egun, eta horien %35a adineko jendeak zaintzen du.

DATUAK: BIDELAGUN

pentsatu dugu. Xa- har aunitz gurpil- dunaulkietan datu- de, eta orduan bo- luntarioek hartu eta paseo bat ema- tera aterako dituzte, berekin so- las egin...

Gure leloak “eman hartzaile izateko” dio: zuk laguntza ematen duzu eta modu batean aberastu egiten zara, eta gainera, beharbada egun batean zuk hortik pasatu behar- ko duzu, nork daki».

Ez da gauza xamurra adineko pertsonak eta gaixorik daudenak laguntzea, eta esperientzia pixkot hartzeko ikastaroa prestatu dute Bide- lagunekoek. «Nola hurbildu

xahar batengana, nola solastu behar zaion, nola entzun...» hori dena ikasiko dute ikastaro honetan, «baina batez ere, kontuan hartu behar da adindua ez dela haur bat, xaharra ondutako pertsona bat da, eta pertsona bezala tratatu behar

dugu. Gero ere, ikusi behar dugu xaharrek zer sentitzen du- ten beren egoeran. Horretarako, ari- keta batzuk egi-

“Kontuan hartu behar da xaharra ez dela haur bat, ondutako pertsona bat baizik, eta pertsona bat bezala tratatu behar dugu”.

nen ditugu: aulki gurpildunean ibi- li...» dio Isidro. Gizarteak perso- na zaharrei buruz duen kontzeptua aldatu behar dela uste du. Izan ere, zahartzean perso- nek balioa galtzen dutela pentsa-

tzen da, gauza txar bat bezala ikusten da. Ho- ri, ordea, ez da beti horrela izan. Garai batean, zahartza- roa jakinduriarekin lotzen zen zen ba- tez ere. Isidro ha- la us-

te du: «zahartasunean dago bizitzaren jakinduria, eta ho- rrela begiratu beharko ge- nieke jakintsu hauei. Adine- an zaharrak izan arren, biho- tza geroz eta gazteagoa dute, eta jakintsuagoa ere bai. Es- perientziak bihotza haunditu egiten duela pentsatzen dut».

Harremanetan jartzeko:

Bidelagun talde- ak ondoko tele- fono hauek jar- ri ditu infor- mazioa ema- teko: 948 580 094 edo 670 406 919 (sa- kelekoa). ■



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91
Internet:
<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>
e-mail:
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arozena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arozena, Asier Gogortza.
Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Martine Goietxe, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza.
Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.000 Pta.
Iparraldeko Euskal Herria ... 140 Libera
Europa ... 3.500 Pta.
Amerika ... 15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jasatu du

GAURKOTASUNEN GAIA

Alkoholemia kontrola ehiztariei?

Ez litzateke txarra izanen, kotxearena baino neurri haundixeago batekin



Joxeangel GOIENETXE
Etxalarko albintea

Hori ez da gaur goizeko kontua, aspaldiko zurrumurrua da. Etxa-

larren ere zerbaiterran dietet txabola batean zeudenei, bainan momentuz ez diote kontrolik egin inori.

Hori nerretzat ez litzateke txarra izanen, aldika pasatzen baitira ehizturiak, bainan ez nuke nahi hagitz eskas izatea alkoholaren neurria. Kotxearena baino neurri haundixeago batekin ongi egonen litzateke.

Ehiziko egunak onak dira, baina hoberena gosaria izaten da, nere ustez. Mendian ardo pixko bat edatea ez dut uste debekatu behar denik.

Bertzalde, Guardia Zibilak zorrotz ari dira lehendabiziko egunetik, puestotan barna pasatuz eta erranez lainoarekin ez indelae hizian ari. Joan den igandean 17 Guardia Zibil ibili ziren puestoz- puesto. Igandean ehizturi batzuk harrapatu zituzten txabolan gosaltzen. 4ren eskopeta kendu zizkieten, fundatik kanpo eta kargatuak izateagatik. Saretan, berriz, bi kendu zituzten, postutik kanpo ehizian aritzeagatik. Ehiztariak nahiko haserre dira, egun gehienetan usategietan agertzen direlako eta franko gaizki portatu direlako.

Ez dakit egia den edo ehiztariak izitzeko ateri duten bulla bat



Mikel ARBURUA
Igantziko ehizaria

Zurrumurrua aditu dut alkoholemia egiten hastekotan alkohol neurria 0,0 izanen zela, beraz, ezin go zen deus ere edan. Batzuk erraten dute egia dela, bertzeek ehiztariak izitzeko ateri den bulla bertzerik ez dela... ez dakit. Azken finean, dirua ateritzeko bertze modu bat izanen litzateke hori. Limite haundiago batekin jarri ezkerero ez zitzaidan arrontean gaizki idurituko, nonbait hor, baina hortikan deus ez edatera...

Ez zait iduritzen arrisku handia duen kirol bat denik ehiza, beharbada basurdetan ibiltzen direnak gehiago, baina postuan bertan egoten direnak hotza gehiago pasatzen dute, eta pixkot edatea ez dute kalte izanen. Bertzalde, txabolatan-eta erraten da aunitz edatan dutela, eta hori pixko bat kontrolatzea beharbada ez da horren gaizki, baina logika baten barrenean beti ere.

Nik ez nituen behinere somatua baina aurten bi bisita egin dizkigute Guardia Zibilek Igantzira. Multa bat edo bertze paratu dute, eta bateri eskopetarekin postutik kanpora egoteagatik eskopeta kendu diote.

Ardo trago pare batekin positibo ematen bada ederra dugu!



Jose Miguel LARGO
Leitzako ehizaria

Nik beste herrietan horrelako kontrolak egiten hasiak direla zurrumurrua aditu dut, bai, baina ez dut berri garbirik inondik ere.

Hemen, Leitza inguruan behinik-behin ez da horrelako kasurik gertatu.

Egia esan, nik ez dut sekulan aditu norbaitek usotan dagoela beste norbait tiro eman dionik. Basurde ehizian beharbada bai, deskuidatuta, baina postuan bertan sekulan ez, eta gutxiago edana egoteagatik. Gainera, mendira joatean puxke eder bat eramaten duenak ardo trago bat egiteaz da bertze munduko gauza, nere ustez. Gero ardo trago pare batekin positibo ematen baldin bada, ederra dugu!

Hemen Leitza inguruko mendietan Foralaketan Guardia Zibilak ibiltzen dira ehiztariei dokumentazioa eskatzen-eta, baina orain arte ez dut aditu inori alkoholemia kontrola egin diotenik. Dena den, nere ustez hori ez da soluzioa. Norbait erokeri bat egiten ikusten badute orduan haren gana joan daitezela, baina gainerakoan...



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jasatu du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenerik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

AUTO ESKOLAK



**SEMPER
AUTOESKOLA**

Eztegara, 22 • BERA
Tfnoa.: 948 630 298

▶ %10 merkeago
matrikula egitea

ARROPAK

Kamamila

ARROPADENDA

Merkatu karrika, 2
Tfnoa.: 948 451 528

DONEZTEBE

▶ %10 merkeago
arropetan

**MARELI
Jantzidenda**

Sasoiko jauntziak
Neurri haundikoak
Loreak Mendian

Jaime Urrutia, 27
ELIZONDO

▶ % 5 merkeago
Arropa guzietan

LENTZERIA



Parrokia, 11
DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 01 12

▶ %10 merkeago
5.000 Ptatik goitiko
erosketetan



TTIPI TXARTELArekin
beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago
irabaziko duzu.

Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA

948 63 11 88



KIROLAK ZELA

Sudadera eder bat
TTIPI TXARTELA dutenendako

Berako **Kirolak Zela** arropa eta kirolendak sudadera
bat oparituko du Ttipi Txartela dutenen artean.



ESTETIKA



**LURRINDENDA
ESTETIKA**

Behoko Plaza, 8
LESACA
Tfnoa.: 948 637 791

▶ %10 merkeago
2.000 Pta. baino
gehiagoko erosketan
baldin bada

KIROLAK

**Agara SPORT
KIROLAK**

**EHIZA, ARRANTZA
ETA KIROLA**

Altzate, 22 • BERA
Tfnoa.: 948 630 999

▶ %10 merkeago kirol
artikuluetan

OPARIAK

**MAIMUR
LIBURU ETA PAPERDENDA**

Elbarren, 15 • LEITZA
Tfnoa.: 948 51 01 46

▶ %10 merkeago opari
artikuluetan



• Gogoratu astero
Bordatxorako 6 sarrera
zozketatzen direla.

Sudadera eder bat,

zozketatuko da **TTIPI TXARTELA** duten artean.
Zozketan parte hartzeko, deitu azaroaren 26a baino lehen 948 63 11 88ra.

 **Michel ERNAGA** LEIA

Piriniotako autobidea: lekuko interesen aurka



LEIAK hasieratik erran du hego/ipar norabidea duen autobide bat ez dela inolaz gure ekonomia-aren ga-

rapenari doakion aterabidea: gure ekonomia-aren sareak indartu behar du, zeren gaur egun ipar Euskal Herri barnekaldea kinka larrian baitago. Baina garapen sareak Ipar hiru probintzien alkarlanean josi behar du eta ez bestela. Erran nahi du behar dugula barnekaldea eta itsalsadea elkarri josi zehar azpiegitura azkar batzuekin. Proiektu hau ez da inolaz ere egitasmo horretan sartzen, ez baita gure ekonomia-arentzat asmatua, trafiko internazionalari erantzun baten emateko baizik.

Erran nahi baita nazioarteko logika ekonomiko baten petze-roak izanen garela. LEIAK hasietik erran du ezin dugula onar holako proiekturik, gure lekuko interesen aurkakoa baita. Gainera, ekonomia garapena ezin da bereiz ondare ekologikotik, biharko ekonomia-aren baliabideak baitaude altxor ekologiko horretan.

Azkenik, erran nezake gaur egun trafiko internazionala gero eta haundiagoa dela eta ezin da ukatu aterabideak atzeman behar direla. Trafikoari doakion aterabidea garraio kolektiboetan da eta Herriek beharko dute inbertitu egiten dutena baino aise gehiago zentzu horretan. Trenbideari behar zaio eman garrantzia eta garapena. Europa ipar eta ekialdean,

Suiza ala Austriari begiratzeko badiogu, garraio horri ematen diote indarra. Nafarroako eta iparraldeko agintariek egin duten ikerketan, ordea, aldatibako kolektiboak guttiesten dituzte.

Egoera gaur egun oso lanbrotsua da. Badirudi egoera nahasi bat sortu nahiz ari direla. Guk ez diogu Intxauspere proposamenari pisu haundirik ematen, kontutan hartuz duela zenbait hilabete gizon bera amorraturik zegoela Luzaideko pasabidearen alde! Fidarria ote

Aurkeztzen diguten proiektua ez da gure ekonomia-arentzat asmatua, trafiko internazionalari erantzun baten emateko baizik.

da gizona eta bere hitza? Bestalde, Bayrou, proiektuaren arduradun nagusia, ixiltasunean dago. Ez dakigu errealki zertan duten proiektua baina erran dezakeguna da jendea haserre dagoela hemen gandi eta mobilizaturik segituko duela.

Herri mogimendu honek ez luke bakarrik gure eskualdean egon behar, egiazko anaitasunean behar luke beste ibarrekin bat egin. Lanjer eta kezka berak jasanen dituzte baztandar, lapurtar eta zuberotarrek. LEIA Baigorriin sortu zen eta gero goi nafarroan, eta sortu zirenetik, bi elkartek esku- esku daramate borroka, lotura eta giro sano batetan. Agian beste ibarretan ere sortuko dira mugimendu era berekoak elkarrekin lan egiteko.

 **Fernando MIKELARENA** Historialaria

Nafar foralismoa eta euskara



Historikoki Nafarroako eskuin tradizionalistek eta nafar foralistek euskararen aitzinean izan du-

ten jarrerari buruz mintzatu gara artikulu honetan. Hasteko, XVI. mendetik hona euskarak izan duen bilakaera aipatuko dugu labur-labur: 1587. urtean, euskara Nafarroako Mendialde eta erdialdean solasten zen, eta orokorrean, nafarren %65-aren ama hizkuntza zen (97.000 lagun). Berrehun urte beranduago, 1778an, euskarak erdialdetik behetik lurraldeak utzi zituen (120.000 lagunek, %53ak, solasten zuen euskara Nafarroan). 1863an, berriz, erdialdeko eremu eskaldun bakarra Valdezarbe zen baina mendialde osoan solasten zen, oraindik. Portzentaia, ordea, %32ra jaitsia zen (73.000 eskaldun). Azkenik, 1935ean, Erronkari, Saraizu, Aezkoa eta mendialdeko haran aunitzetako gazteek erabat galdua zuten euskara, eta heldu eta zaharrek bakarrik mintzatzeko zuten. Denetara, eskaldunak %17a bertzerik ez Nafarroan, 60.000 pertsona inguru. Datu hauetatik bi interpretazio desberdin ateratzen ahal dira: batetik, eskuin tradizionalistekin eta euskal nazionalismoarekin bat etorri, euskara Nafarroako jatorrizko hizkuntza dela ondorioztatu daiteke, aitzina gehiengoaren hizkuntza izan zelako. Bertzetik, nafar foralismoaren ikuspegia ere

ulertu daiteke: euskara Nafarroan iraganeko gauza bat dela, alegia, eta, beraz, bigarren mailako identitate zeinu bat bakarrik, mendialdeko berezko hizkuntza delako gaur egunean.

1917 eta 1936 artean, nafar foralismoa eskuin ez abertzalearen identitate doktrina izanen da. 1975etik hona nafar foralismoa UPNren ondare teorikoa izan da, baina baita bertze alderdiena ere, neurri handi batean.

Euskarari dagokionez, 1917 aurretik eskuineko tradizio-

Eskuineko tradizionalistek euskara erabiltzen zuten -erlijioa eta foruekin batera- euren interesak defendatzeko, eta liberalismo eta sozialismoaren kontra jotzeko.

nalistak euskara hitzez errebindikatzen zuen (Diario de Navarran, batez ere), baina nere ustez euskararen aldeko jarrera horiek erabat artifizialak eta axalekoak ziren. Hizkuntza erabiltzen zuten -erlijioa eta foruekin batera- euren interesak defendatzeko, eta liberalismo eta sozialismoaren kontra jotzeko.

Foralistak, berriz, ez ziren euskara ahobetez kritikatzera ailegatu, baina euskara batuaren kontra eta nafar euskalkien alde jarri ziren euskararen normalizazioari trabak jartzeko. Bertzalde, ez zuten euskararen gainean inolako politika aktiborik sustatu.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Xingola 99ko azaroak 7

«Munduaren jabe izanen banintz, nik dirua banatuko nuke, eta baita bazkaria ere, pobreei banatuko nieke».

Antton JAUREGI
AMAIUR, 7 urte
Euskaldunon Egunkaria
99-11-07



Xingola 99ko azaroak 7

«Agintari izanen banintz, zalditegi bana jarriko nuke herri bakoitzean, ni eta gainerako bertze guztiak zaldian ibiltzeko».

Sara SAROBE
BERA, 11 urte
Euskaldunon Egunkaria
99-11-07



Xingola 99ko azaroak 7

«Nik Xingola haurrentzako gehigarria banatuko dut».

Igor GOIENETXE
AMAIUR, 5 urte
Euskaldunon Egunkaria
99-11-07

◆ **Barça, Osasuna eta Beti Gazte zalea. Zein ordenetan jarriko zenituzke?**

❖ Lehenbizi Beti Gazte, gero Osasuna eta ondok Barça.

◆ **Noiz ikusiko dugu berriro Osasuna lehen mailan?**

❖ Buff... Urte aunitz beharko ditu goitzeko.

◆ **Futbol sobera ematen dute zure ustez telebistan?**

❖ Bai, baina jendeari gehien gustatzen zaiona delakoz.

◆ **Lehen futbol handian aritu zinen eta orain futbiton. Zein gustatzen zaizu gehiago?**

❖ Futbola gehiago. Futbiton oraindik txarra naiz, baina futboleko figura bat.

◆ **Zer nahiago, Aceralian correturnos edo baserrian belarrak egiten?**

❖ Aceralian correturnos dudarik gabe, baina baserriko brontzeatuarekin.

◆ **Bizitzeko, baserria edo pisua?**

❖ Baserrian lasaitasun gehiago duzu... baina aziendarik gabe, eh!

◆ **Feria egunerako planik onena?**

❖ Bazkari ederra egin eta gero poteo ttiki bat.

◆ **Ortzegunean feria, ortziralean San Frantzisko, asteburua, astelehenean Konstituzio Eguna eta asteazkenean Inmaculada... Bigarren Sanferminak abenduan aurten?**

❖ Izan daitezke, baina nik lasai hartuko ditut.

◆ **500 urte bete dute aurten feriek. Egitarauan zerbait aldatuko zenuke?**

❖ Ez, bortzehun urte agontu badute zerbaitegatik izanen da.

◆ **Momentu honetan gehien gustatzen zaiken musika?**


❖ Larunbat arratsetan S.A. eta astetartean zerbait lasaiagoa.

◆ **Irakurri duken azken liburua?**

❖ "La trama verde" Pepe Rei-rena, hagitz ona.

◆ **Zer arrazoirengatik moztuko hukeen melena?**

❖ Auniztan pentsatu dut itxura aldatzea, baina orain ez nukeen eginen.



Iban MAIA

LESAKA

Langilea eta futbito jokalaria

egin zaitez harpidedun

URTE OSOKO TARIFA (BEZ barne):

Hego Euskal Herria 47.500 • Ipar Euskal Herria 59.000 • Espainia 47.500 • Europa 59.000 • Amerika-Afrika 145.000

Izen-abizenak N.A.N Tfnoa:

Helbidea Posta Kodea Herria Herrialdea

Ordainketa mota: Bankua Taloa Transferentzia Giro postala

(Banku bidez ordaintzekoak betetzeko) Banku edo aurrezki kutxa

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Titularra Tfnoa: Helbidea

Harpidetza-orria bete eta bidali helbide honetara:

Baigorri Argitaletxe, S.A. • Portuetxe, 23 - 2.A • 20018 Donostia (Gipuzkoa)

Ehiza eta ardo nafarra elkartuak VII. Jardunaldi Gastronomikoetan

Bertizko Partzuergoko hogeita bat jatetxek hartuko dute parte

TTIPI-TTAPA

Bertizko Turismo Partzuergoak zarpigarren urtez antolatutako ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoak azaroaren 28ra bitarte iraunen dute. Aurten, Nafarroako Ardoa Jatarrizko Izendapenaren Batzorde Arautzailea izanen da laguntzaile. Honela, eskualdeko 21 jatetxetan ehizarekin prestatutako jakiak prestatzeaz gain, Nafarroako 18 bodegetako ardoa dastatzeko modua izanen da.

Azaroaren 2an egin zen jaldunaldi hauen aurkezpena, Berako Kultur Etxean. Jose Ignacio Martinez Alfaro Nafarroako Gobernuako Nekazaritza kontseilaria, Alvaro Marino Batzorde Arautzaileko lehendakaria, Josu Goia Berako alkatea eta Nora Eneterreaga Bertizko Turismo Partzuergoko gerentea izan ziren ekitaldian, jatetxe batzuetako nagusiekin batera. Alvaro Marinok erranzuzenez, «Nafarroan kaitate handiko ardoaba-



Ehizi gaiak eta ardoa: otordu on batean elkarrekin ederki moldatzen diren produktuak.

Artxibokoa

dela erakutsi nahi dugu eskualde honetan, klase guzietakoak gainera». Jatetxeko arduradunen ustez, hemen Errioxako ardoa gehiago edaten da gauregun.

HOGEITA BAT JATETXE ETA HEMEZORTZI BODEGA

Zarpigarren jardunaldi hauetan, honako jatetxe hauek hartuko dute parte: Beola (Almandoz); Aterpe eta Burlada (Arantza); Eus-

kalduna, Matxiarena eta Zalain (Bera); Donamariako Benta (Donamaria); Amezitia (Doneztebe); Hilarion (Elgorriaga), Baztan, Eskisaro eta Txokoto (Elizondo), Igantzi eta La Villa (Igantzi); Olari eta Taberna del Fotografo (Iruia); Bereau, Kasino eta Koxkonta (Lesaka); Hotel Mugaire (Oieregi) eta Indiano Baita (Urdazubi).

Ardoak ekarriko di-

tuzen bodegak berriz honako hauek dira: Vinícola Navarra, Monjardín, Piedemonte, Herederos Camilo Castilla, Nuestra Señora del Romero, Irache, Príncipe de Viana, Cooperativa Olitense, Sarría, Garbide, Alvaro y Borja Marino Pérez de Rada, Marco Real, Orvalaiz, Ochoa, Vinícola de Tafalla, Nuestra Señora del Camino eta Cooperativa de Ujué.

Errenta aitortpenean desgrabatzeko aukera dago etxekoren bat zaintzeagatik

Eskualdeko Oinarriko Gizarte Zerbitzu-erretatik jakinarazi duteenez, zenbait kasutan badago Errenta Aitortpenetik desgrabatzeko aukera. Ondoko kasuan baldin bazaude izanen duzu desgrabatzeko modua: etxekoren bat zaintzen baduzu, bere kabuz moldatzeko gauza ez delako eta egunero-ko eginkizunetan zure laguntza osoa behar duelako.

Eskaera egiteko edo informazio gehiago izateko eskualdeko Oinarriko Gizarte Zerbitzuetara joan behar da.

Bortzirietan, 948 635036 telefonoa (Mikel); Malerrekako Zerbitzu Mankomunitadara, 948 451746 telefonoa eta Leitzaldean 948 610617 telefonora (Junkal).



ZALAIN Zalain Auzoa
© 948 631106
BERA
 J A T E T X E A
 EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

ALZURI
 • Sukalde tresneria eta opariak
 • Landare eta loreak
 Tel.: 948 630 370 • BERA

E D A R I A K

 MANUEL TABERNA S.L.
 Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
 Tel. - Fax: 948. 63 10 27

Alberto
RETEGI
 abokatua
 Altzate 17
 BERA
 © 948 630 763

Izatezko Bikoteen Udal Erregistroa sortu du Herriko Etxeak

Ezkondu gabeko bikoteak onartuko dira, sexu berekoak izanda ere

ASIER GOGORTZA

Elkarrekin bizi bai, baina ezkontzeko asmorik ez duten bikoteek erretasun gehiago izanen dute hemendik aitzinera. Herriko Etxeko Udalbatzarrak aurkeztu eta ahobatez onartu duen moziobaten bidez, ezkongabeko bikoteek ezkonduen eskubide berberak izanen dituzte. Gainera, ez zaio deustarako begiratuko bikotekideen sexuari. Hori bai, herri mailako afertan bakarrik izanen du indarra lotura honek, legeak oraindik ez baititu berdinetik berdineran onartzen bikote ezkonduak eta ezkongabeak.

Herriko Etxean erregistratua agertzeko, baldintza bakarra bete behar du Izatezko Bikoteek: bietako bat Beran erroldatua egotea, alegia. Izena emateko nahikoa da biek Idazkaritzara agertu eta han galdetzea.

Normalki, gisa honekako bikoteek diskrezioa nahiago izaten dute elkartzeko ekitaldian. Hala ere, Josu Goia alkateak aipatu digunez, ospakizuna modu ikusgarriagoan egiteko aukera ere badago, horretarako Herriko Etxeko Batzar Aretoa erabiliz nahi izan ezker.



Lurraren eguneko zenbakiak

Dudarik gabe, orain arteko Lurraren Egunik jendetsuena izandu da aurtengoa, baina ezin da xuxen erran zenbat lagun ibili zen Beran urriko azken igandean. Bai, ordea, zenbat artisauk jarri zuen bere postua Altxate karrikan: 114 izan ziren denetara, hoietatik 36 inguru honetakoak. Zura, ohialak, larrua... 40 gremio desberdinetako eskulangileak ikusi ahal izan ziren. Hoietaz gain, jatekoetan 29 postu desberdin jarri ziren: pastelak, edariak, eztiak, eta bertze hainbat.

Bertzalde, gasna lehiaketara 9 ale desberdin aurkeztu dira aurtengoa. Irabazlea Alkebere baserriko gasna izan zen, eta 22.500 pezetatan saldu zen arratsaldeko enkantean. Bigarren saria, Iñaki Pikabearena, 5.600tan erosi zuten, eta hirugarrena, Etxalarako M^a Ixabel Irazokirena, 2.800 ptan.

Lurraren Eguneko II. Sagardo Lehiaketara, berriz, 17 sagardo botila aurkeztu ziren. Sagardorik hoberena Txanburne baserrikoa izan zen epaileen eritziz, eta horren ondotik Maletenea eta Olamitx baserrietako botilak hautatu zituzten.

Argazkiak: Asier

Kultur Hamabortzaldia

Etxalar, Sara, Azkaine eta Berako kultur elkarteek antolatzen duten kultur hamabortzaldiaren berri somatu izanen duzue dagoeneko. Azaroaren 13tik aben-

duaren 5era egingen da, eta lau herrietan hainbat kontu izanen dira ikusgai.

Beran, azaroaren 26an, rock gaua izanen da Altxateko ostatuetan. Hasteko, Hondarribiako Lisabö taldeak Bidax-

kan joko du arratseko 9ak aldera. Ondotik, Pabetik heldu den talde interesgarri bat Puin: "High Fidelity International". Gaua akautzeko, Zizkan, Komando Kaltzontzilo taldea eta Joseba DJaren musika.

flash

Itxialdia

15 bat lagunek itxialdia egin zuten Herriko Etxean azaroaren 6 eta 7ko asteburuan, euskal presoek Euskal Herria erakitzekeko prozesuan parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzeko. Itxialdiari akabaila emanez, igandean manifa zaratatsua egin zuten 50 lagun inguruk. Helburu berrekin, azaroaren 27-28ko asteburuan mendi martxa egingen da Bortzirietan. Bera larunbat eguerdian ailegatuko da martxa, eta alkatearen harrearen ondotik bazkaria egingen dute eskolan.

Santa Zezilia

Azaroaren 22an, astelehena, musikariaren eguna ospatuko dute Berako musika eskolako ikasleek. Arratsaldeko Setan kalejira egingen dute, eta gero Musika Eskolan kontzertua emanen dute irakasleek. Besta akitzeko txokolatada izanen da.

Auzo batzarra

Azaroaren 11n Agerrako plazan bilkura egin zuten auzotarrek eta Herriko Etxeko 9 ordezkariak, auzoko hainbat konturi buruz mintzatzeko. Bizilagun aunitz bildu zen, 60 inguru, eta euren kezak eta galderak aurkeztu zituzten. Auzo-batzordea osatzea ere aipatu zen.

zapatak osagarriak konponketa
kalotxa
Kanttonberri 6 Bera
☎ 948 631516

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

ie Iriarte-Echandi, s.l.
• Aholkularitza
• Artekartitza
• Aseguruak
Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

JARONE-GOZOTEGIA
Altxate, 19 • 948630786 • BERA

Mari Jose Agirretxe liburuzainaren lan etorkizuna solasgai ortziraletako udal plenoan

Iruñeko Bigarren Gizarte Epaitegiak langilearen aldeko erabakia hartu du

AITOR AROZENA

Hamar urtez udal liburutegiko arduraduna izan den Mari Jose Agirretxe lesakarraren lan etorkizunaz eztabaidatuko dute ortziraleko honetako udal batzarrean.

Arazoa uda aldean hasi zen. Nafarroako Gobernuak Lesakako liburutegi publikoko arduradunaren hutsa betetzea erabaki zuen, Agirretxek bitartekotasunez betetzen baitzuen lanpostu hori. Honela, alkateak uztailaren 22an Marijoren kontratua deuseztatu zuen. Biharamonean, liburutegiko arduradunak bide judicialari ekin aitzinetik kaleratzearen aurkako erreklamazioa sartu zuen udal bulegoetan.

Alkateak erreklamazioa huez onartzea erabaki zuen, bere ustez Nafarroako Gobernuak baita liburutegiaren titularrak eta kontratua deuseztearen arduradun bakarra. Ondorioz, erreklamazioa Nafarroako Gobernuari aurkeztu behar zitzaioela uste zuen alkateak.

Horren aitzinean, Mari Jose Agirretxek, Lesakako Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren aurkako kaleratze-demanda aurkeztu



Juan Carlos Pikabea margolariaren lanak Iruñeko Kasino Berrian izanen dira azaroaren 30a bitarte

Juan Carlos Pikabea margolariaren lanak ikusgai daude Iruñeko Kasino Berrian. Azaroaren 30a bitarte zabalik egonen den erakusketan artista lesakarraren paisaiak ageri dira, olioiz margotutakoak formatu ttikian. Joan den urtean Planetarioan egin zuen erakusketako margolanen aldean, oraingoan argi eta kolore biziagoak dituzte, adituen erranetan.

zuen Iruñeko 2. Gizarte Epaitegian. Honek Marijoren aldeko erabakia hartu du. Nafarroako Gobernuari eta Udalari berriro liburuzain gisara hartzea eskatzen zaie epaian, edo bertzenaz indemnizazioa ordaintzea.

Azkeneko batzarrean, epaiaren ildotik, Marijo berriro lanean hartzea eskatu zuen EHk. Alkatea eta PNV-EA taldea, ordea, ez dira erabaki honen aldekoak eta indemnizazioa

ordaintzearen aurkako errekurtsioa ere aurkeztu nahi dute.

Afera ortziraleko honetako plenoan, arratsko 8etatik aitzinera eztabaidatzeko utzi zen.

Tomasenekobordako errotonda

Tomasenekobordan egiten ari diren errotondaren lanak ziztu bizian doazi aitzinera. Joan den astean, inguru horretako trafikoa arautzeko semaforoak jarri zituzten. Orain

arriskutsu xamarra badago ere, lanak akautzean puntu beltz honi irtenbide egokia ematen zaiola iduri du. Fabrikatik ateratzen diren kamioiek ez dute ikuspegi arazorik izanen eta herritik atera edo Lesakara doazen autoak ere lasaigo ibiliko dira.

Biribilgunearen barneko erradioa 12 metro terdikoa izanen da eta launa metroko bi karril eta metro bateko bide bazterra izanen du.

Santa Zezilia eguna ospatuko dute herriko musika taldeek

Azaroaren 22an, Santa Zezilia, musikarien eguna dela eta, herriko musika taldeek zenbaitekitaldi antolatu dituzte aitzineko astebururako. Larunbat honetan, arratsaldeko 7,30etan, abesbatzak eta akordeoi bandak emanaldia eskainiko dute Herriko Etxeko pleno aretoan. Igandean, eguerdiko 12,30etan trikitilari eta txistulari taldeen emanaldia izanen da.

Gero, 150 bat musikari bilduko dira Kasinoan eginen den bazkarian.

43.845.975 pezetakoa da lanaren aurrekontua.

Sokatira taldea Nafarroako txapelketan

Larunbatean Sunbilla jokatu zuten 680 kiloko txapelketaren finala. Hurrengo asteetan 640 kiloko txapelketan murgilduko dira: azaroaren 2 lehen lehen saioa Atarrabian; azaroaren 27an bigarrena Txantrean eta hirugarrena abenduaren 3an Larraintzarren.

BEKO ERROIA
Lore eta landareak
 © 948 63 78 26
 Frain auzoa • LESAKA

ANA
Janaridenda
 Bittiria, 41 • © 948637518
LESACA

KATTU
 ostatu - jatetxea
 Plater konbinatuak eta menuak
 © 948627573 • LESAKA

kixkur
Ileapaindegia
 Tel: 948 637429
 Bittiriako Plaza, 3 behe
LESACA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
 Tfnoa.: 948 627 514
 Beheko Plaza 8, LESAKA

ETXALAR

Kultur Hamabortzaldia ekitaldiz betea

Azaroaren 22a eta abenduaren 5a artean gauzatuko da

PELLO APEZETXEA

Azkain, Bera, Etxalar eta Saran beteko da, lau herrietako kultur elkarteek prestatutako kultur ekitaldi zerrenda. Etxalarri dagokionez, 24an Jabier Telleria solastuko da, gaur egun gero eta gehiago aditzen den etxe bioklimatikoa buruz. Herriko Etxean, 8etan. Abenduaren 4an, berriz, Herriko Ostatuan bertso afaria izanen da. Hendaiako Amets Arzallus, Xumai Murua, Eneritz Zabaleta, Mirentxu Artetxe, eta Lesakako Silveira eta Iñigo Olaetxeak hartuko dute parte. Arratsko 9etan.

ETB ezin ikusi

Badira herrian Eus-

kal telebista ikusten ez diren edo gaizki ikusten diren tokiak. Lesakako seinalea hedatzeko igorle berriak behar direla errana du, nonbait, teknikoak. Baina jendea, eta Udala bera ere, aski berantetsia dago, egunak etorri eta egunak joan ez baita moldatzen afera.

Bideen ordenantzari buruz bilkura publikoa

Mendiko pista etabideak nola erabili erakusten duen Ordenantza onartu du Udalak, baina, indarrean jarri aintzinetik, TTIPI-TTAPA aldikarian eta telebistan ezagutzera emanen du. Eta, gainera, bilkura publikora deituko ditu herrietarrak, jendeak bere



Landagain eskolak irriti saioak egin ditu

Ordu bat eta erdiko lau irriti-saio eskeini ditu Landagain Eskola Publikoak azaroaren lehen astean. Haur guziek hartu dute parte, berri emate, kantu, elkarrizketa eta abarrez osotutako programan. Haur guziek, eta irakasle guzietan, hauena baita ardura nagusia.

iduria agertzeko aukera gehiago izan dezan.

Kontsulta-ordua eskatzearekin kexu da jendea

Herriko mediku kontsultara joateko aintzinetik Lesakara deitu beharra, ez du iduri soberra ongi hartzen ari denik jendea. Kontsultara, eta errezeta hutsa egiterajoateko. Lehengoarekin konparatuta, jen-

de aunitzi aditzen zaio ez duela hobekuntzarik ikusten. Baizik eta, gauzak zailago dagozela orain.

Granadako alkate eta zinegotzien bisitaldia

Andaluziatik bisitari talde batetorri da, aintzineko egunetan. Xeheki, Granadako mendialdekoak dira, herri ttitikako hainbat alkate

eta zinegotzi, hemengo herriak eta beraien hobetzeko egiten ari dena ikustera. Cederna-Garalur bezalako erakunde bultzagarri eta langarria han ere sortu, eta %20 jende lanik gabe duten herri haientan zer egiten ahal duen pentsatzeko. Herri eta lur desberdinak hangoak, hemengo arbola eta bazkaren orde, oli-bondoak baitira nagusi.

XATURETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 LESAKA

Txema Etxarte
Zolen akutxilatze eta bernizatze profesionala
 © 948 637439 • 670 215604 • 31700 LESAKA

LABEZAR
 © 948631076 • BERA

IRU BIDE
 ERREKETA
 Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ELENA ENGLISH

- ✓ Matrikulazio epea zabalik
- ✓ Helduak (FIRST) eta haurrak
- ✓ Maila guztiak

Tel.: 670 433 157
LESAKA • ETXALAR

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
 arkitektura bulegoa

Bitfiria, 45 • © 948 637 503 • **LESAKA**

TXIRULA

Albistur, 39-K
 ☎ 627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

ERALDO OSTATURAK
LESAKA

IGANTZI



Bazkaria Nieves Matxikoterekin


Urriaren 30ean lagunartekobazkaria antolatu zioten Nieves Matxikoteri Herrikoetxean berarekin urteotan harremanetan egon direnek, bai zinegotziek eta baita langileek ere. 34 lagun bildu ziren La Villa jatetxean egindako otorduan, eta bazkal ondotik opari ttiki bat ere eman zioten, Herrikoetxean lanean eman dituen urte guziak eskertuz.

Oskar Txoperena

Personaia

Onddo pare ederra arrautu zuen Garberekoren Juan Seinek

Aintzin horretan-egun batzuk joan dira, argazkian ageri den onddo pare ederra arrautu zuen, berze batzuren artean, Juan Garberekok igantziko mendietan-ez zigun erran zehazki non, noskil-. Batak kilo t'erdia pitatu zituen, eta bertzeak hiru laurden. Ez zuen gehiagoren beharrik Juanek berendu ederra egiteko!



Juan SEIN

Ur eskasia haundia dago idortearen ondorioz

34 lagun bildu ziren urriaren 30ean Nievesen lagunarteko bazkarira

OSKAR TXOPERENA

Uda partean aipatzen genuen idortek oraindik irauten du. Ez da herriko ur biltegietan behar adina ura sartzen, eta ondorioz, herriko etxe altuenetan batez ere, arazoak daude zenbait ordutan ura behar bezala ailegatzeko. Idortek abenduaren er-

dirarte iraunen duela errana dagoenez, oraindik makurragotzen ahal da arazoa.

Plazentekoborda

Orain dela zenbait urte harrobiak bi base-ri-Erreuntekoborda eta Talaikoborda- irentsi zituela erraten bagenuen, orain Plazentekobordari ailegatu zaio txanda.

Harrobiko jabeek harria xehetzeko tresneria behetiago ekartzeko duten asmoaren berri eman genuen, eta proiektuaren prestaketak behartu ditu baserria botatzera.

Giltzarri Abesbatza

Joan den astean, ortzegunetik igandera, Baiona ondoko Tarno-

ze herrian izan ditugu Giltzarri gazte Abesbatzako partaideak, igantziarrak barne, noski. Guttienez hiru ekitaldi zizkiten antolatuak Iparaldean, Tarnozen bertan eta ondoko herrixketan ere. Giltzarri Abesbatza herriko Kultur Egunetan entzuteko aukera izanen dugu.

Botxo OSTATUA
© 948630052 • Zalain • BERA

FOTOKOPIAK
txuri beltzean
KOLORETAN
PLASTIFIKAZIOAK
ENKULDERNAN
KULUR ETXE AURREAN
DISEINU GRAFIKO
IRUDI
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
BERA
Tel-faxa: 948 63 15 21

CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERBITZUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura Orokorrak
Bera © 948630735
Irun © 943622305

BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

Gizon eta emakumeen arropan konponketak eta moldaketak egiteko zerbitzu azkarra
MOLDAKETAK KONPONKETAK
RETOUCHERIE
de *Manuela*
Colon Pasealekua 64, behea (Trenbideko zubiaren ondoan)
© 943 660 292 • IRUN

Ur eskasiaren arazoa mozketak batzuk eginez moldatu zen

Momentuz konpondu bada ere, kontu gehiagorekin erabili behar da ura

ELIXABET ETA GARBIÑE

Inguruko bertze herrietan gertatzen ari den bezala, herrian ere izan ditugu aitzin hortan urarekin arazo batzuk. Aste pare batez herriko depositoa betetzen zuten iturriak ur eskasiarekin izan dira, eta urmozketak batzuk izan ziren. Badirudi dena horretan gelditu dela eta berriro ere herriko jendeak ura baduela. Momentuz ez omen dute murrizketa gehiagorik eginen. Denoi kaltetzen gaituzten murrizketa hauek gehiagorik ez daitezten, poliki eta kontu gehiagorik erabili behar dugu ura.

Jubilatuena bidaia

Azaroaren 25ean bidaia eginen dute Igantzi eta Arantzako jubilatuak. Getarian



Euskal presoak Euskar Herriratzearen aldeko Bortzirietako martxa Arantzán akautuko da aurten ere.

Artxibokoa

gosalduta ondotik, Zarautz, Ondarroa, Lekeitio eta Gernikan barna igaroko dira. Butroigo gaztelua bisitatu ondotik Mungian bazkalduko dute. Arratsaldean, Plentzia, Gorliz eta Bilboko zin-

tzilikako zubia bisitatu dituzte.

Garbiketa lanak

Urtero bezala, garai honetan eskola, mediku eta herriko Etxeko garbiketa lanak egiteko lanpostua libre da-

go. Lanpostu horretarako bere burua aurkeztu nahi duenak abenduaren 10a arteko epea du. Baldintzaplegua Herriko Etxean egonen da, edozeinek kontsultatu nahi izanez gero.

Euskal presoak Euskal Herrira ibilaldia azaroaren azken asteburuan

Joan den urtean bezala, aurten ere Euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko ibilaldia antolatu du Bortzirietako Herri Ekimenak. Aurten, azaroaren azken asteburuan egingen da.

Larunbatean, azaroaren 27an, goizean abiatuko da martxa Etxalartik Berarat. Beraz bazkaldu ondotik Lesakara joanen dira. Arratsaldeko 6,30ak aldera ailegatuko dira Lesakara eta bertan ongi etorria egingen zaio martxai eta ondotik kalejira izanen da. Arranon afaria izanen da eta afalondotik, gauerditik aitzinera trikitilarietara bertso-poteoa egingen da ostalutuz ostatu.

Igande goizean, bestondoarekin bada ere, Igantzi aldera abiatuko da martxa. Bertan gosalduta ondotik, Arantzara joanen dira. Bazkaria prest izanen dute Ekaitza elkartean, Ekaitza, Arantzako Herriko Etxea eta Gazte Asanbladaren laguntzaz.

ANTZUZELAI
S.L.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlatuzak
Onna antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pitireak	

Abujordako Zubiarantzak Muzioa Txupetasua

ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK

ALBERGIA JATETXEA

ATERPE
ALBERGIA

☎ 948 634179
ARANTZA

J. RAMOS

Zolak akutzilatuta eta barnizatzen ditut

☎ 948631342 BERA • ☎ 948637172 LESAKA

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.

☎ 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • **BERA**

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina 10 minututan zuk nahi duzun kolorea Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • ☎ 948 63 02 40 • **BERA**

Eusebio Irazoki eta Pedro Irigoien herriko artzainak omendu zituzten Legazpin

Herritik autobusa joan zen hogeita bortz lagunekin

JAIONE ETA ALBA

Joan den irailaren 5ean, Euskal Herriko zazpi herrialdeetako artzainei omenaldia egin zitzaion Legazpin, Legazpiko Udalak antolatutako Artzain Egunean. Gipuzkoako hamabosgarren gazta lehiaketa ere jokatu zen egun berean.

Eusebio Irazoki eta Pedro Irigoien sunbillarrak omendu zituzten. Lehendabizikoa, Nafarroako artzain izendatu zuten eta bigarrena, berriz, Behenafarroakoa. Pedro sortzez baxenafartarra baita, nahiz eta gaur egun Sunbillan bizi.

Sunbillatik autobusa atera zen, hogeita bortz lagunekin. Iaz baino lagun gutxiago joan ziren, baina egun berean Donezteben jokatu zen aizkora apostuak



Taula gainean, eserita ezkerretik eskuinera, Eusebio Irazoki, Consuelo Elea Eusebioaren emaztea, Josefina Jorajuria Pedoren emaztea eta Pedro Irigoien.

Jesus Mari Jorajuriak utzitako argazkia

izanen zuen zerikusirik horretan.

2000. urteko konfirmazioak

Sunbillan, sendotza edo konfirmazioa bi ur-

retetik behin egiten da. 2000. urtean sakramentu hau hartuko duten hogeita hiru gazteak prestatzen hasiak dira dagoeneko. Hogeita hiru gazte hauetatik ha-

mabi 1983. urtean sortutakoak dira eta gainerakoak berriz, 1984. urtekoak. Asteazketan, Basilio Sarobe herriko apezak ematen ditu klaseak, eta ortzi-

raletan, berriz, Ainhoa Agestak.

Bertso afaria larunbatean Ulibeltzak elkarteak

Aitzineko alean apatu baguenen ere, larro hauen bidez larubat honetan izanen den bertso afaria gogoratu dugu. Orain arte zenbat jendek eman duen izena ez badakigu ere, azken momentuan zuetzko edozeineri joatea bururatzen bazaio, Ulibeltzak elkarteak lehendakariari edo juntan dagoen bati erratea nahikoa izanen da.

Bertso afaria azararen 20an arratseko 9etan hasiko da Ulibeltzak elkarteak. Bertan, Mañukorta eta Manolo Arozena ariko dira bertso kantari. Afai ederra, giroa eta umorea onak segurtatuak daude, beraz animatu!

BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Amezitia karrila • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

GAZTANDEGIA
LIZUN
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

ttipi-ttapa internet
<http://www.jakl.com/legazpi/ttipi-ttapa>
E-mail: ttipi-ttapa@legazpi.com

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

CONSTRUCCIONES SALDIAS
ETXEGINTZA OROKORRA
Teilatu eta fatxada berritzetan
espezializatuak
Pintura lanak eta gremio guziak
607 434397 • 619 058264 • LEGASA
NAFARROA GUZIAN ARITZEN GARA

DONEZTEBE

Ainhoa Montes eta Mari Jose Dagerrek irabazi dute paleta-goma txapelketa

Finalean 35 eta 31 irabazi zieten Rosa Daguerre eta Txus Boubetari

PATXI IRIARTE

Erreka elkarteak, Doneztebeko Udalaren laguntzaz bosgarren urtez antolatu duen emakumezkoen paleta goma txapelketaren finala eta hirugarren eta laugarren posturako norgehiagoka jokatu ziren azaroaren 6an eskolako pilotalekuan.

Lehenik, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzen zituen partidua jokatu zen: Garbiñe Elizaintzin gartzaindarraren eta Bea Lizardi igantziarra Estitxu Pierola almandoztarraren eta Goiatz Mánzisor hernaniarraren aurka. Bigarren bikotea aitzinetik ibili zen, 19-26 arte. Baina hor etorri zen gartzaindarraren eta igantziarraren susperraldia. 26na berdindu ondotik aitzinetik paratu ziren eta horrela segitu zuten partidua akabaila arte (35-31).

Final nagusia etorri zengero. Txapelketa honetako bikoteak zozketaz erabaki ziren hasieran, partidua orekatzeko asmoarekin. Hori



Bederatzi bikoteek hartu dute parte Errekako bosgarren urtez antolatutako paleta-goma txapelketan.

Argazkia: ZALDUA

lortu dute antolatzaileek eta partidua gogorrik ikusi ahal izan dira. Halere, finalean bitxikeria suertatu zen. Bi ahizpa, M^a Jose eta Rosa Dagerre erratzuarrak aurrez aurre aritu ziren. Mari Josek, Ainhoa Montes hernaniarra izan zuen lagun aitzin koarduetan. Rosak berriz, Altzako Txus Boubeta izan zuen gibelean. Montes eta Dagerrerengaz gaztetasuna nagusitu zen. Beraiek ziren txapelketako bikoterik gazteena eta final osoan aitzinetik ibili ziren, 35-31 irabazi arte.

Txapeldunek, CAN-ek emandako txapelak eta Apeztegia Berria ferreteriak emandako erlojuak eraman zituzten. El Cafe ostatuak, Belen loredendak eta Gonzalo Fernandez elektrogailuak emandako opariak jaso zituzten. Besta Bordatxon akitu zuten txapelketa parte hartu duten 9 bikoteek.

Ordenantza fiskal moldatuari haserako onepena

Udalak haserako onepena eman dio Ordenantza fiskaletan egindako moldaketei. Bertzeak bertze, komertzioak irekitzeagatik ordaindu beharreko tasak, ura, depuradora eta herri lurrrakerabiltzeagatik ordaindu beharreko zergak edo Musika Eskolako matrikulazio tasak zehazten dira ordenantzan. Herriko Etxean dago ikusgai.

Belatetik Doneztebera ilargi betearen pean oinez joanen dira azaroaren 21ean

Erreka mendi taldeak iaz arra kasta haundia izan zuen ekitaldia errepikatuko du aurten: Belatetik Donezteberako gau ibilaldia. Haseran, azaroaren 7an egitea pentsatuazuten, baina ilargi bete izatea kome-nigarria denez, igande honetan, azaroak 21, egingen da.

Ibilaldian parte hartzeko nahitaezkoa da Titi ostatuan izena ematea. Horretarako epea ortziral honetan akituko da.

Aurtengo ateraldietan jendea unitz biltzen du Erreka mendi taldeak, baina gaueko martxa honek marka guziak gaudituko ditu seguraski.

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donztebe

MALDAERREKA, S.L.
 24 orduko zerbitzua
 Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritarra trasladoak
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE


AKORDEOIAREN 601-MAILAKO AKADEMIA
MENGHINI AKORDEOIAK Angel Manuel Belio
AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU
 Deskontuak akordeoia erosterakoan
DOMINENA Etxea
San Andres Karrika, 40 NARBARTE
0 943 - 61 50 55

ETXANDI
TXOKO
jatetxea
 Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
 Tel: 948 45 04 91

IRAKASKUNTZA

OSASUNA

Irakasleen egonkortasun handiagoa eskatu dute ikastetxe publikoek


Jesus Laguna Hezkuntza kontseilariak egindako bisitaldian

TTIPI-TTAPA

Jesus Laguna Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Kontseilariak eta Santiago Arellano Zuzendari Nagusiak Baztan eta Malerrekara egindako bisita aprobe txatu dute ikastetxe publikoek beraien beharren berri emateko.

Doneztebeko eta Elizondo-Lekarozko Derri gorrezko Bigarren Hezkuntza zentroetako zuzendari eta irakasleak eta Haur eta Lehen Hezkuntza ematen duten hogei ikastetxe publikoetako zuzendariak bildu ziren Iruñeko ordezkariekin.

DBHko bi zentroek bat egin zuten zenbait eskaritan. Adibidez, biek behin behineko irakasle aunitz dituzte eta egoera hori moldatu



Doneztebe eta Lekarozko institutuetan ari diren 110 irakasleetatik erdiak behin behineko langileak dira.

Artxibokoa

nahi dute. Lekaroz-Elizondoko Institutuan ari diren 81 irakasleetatik 35 behin behineko egoeran daude. Doneztebeko Institutu-

an portzentaia oraindik handiagoa da, 29 irakasleetatik 19 behin behinekoak baitira. Hezkuntza kontseilariak adierazi zuenez, 2001.

urterako langilegoa egonkortu nahi dute.

Bi zentroetako zuzendariek eskertu zuten Jesus Lagunaren bisita. Agustín Olabe, Leka-

Menopausiari buruzko solasaldiak Sunbillan

Doneztebeko Osasun Zentroak, Elizondoko Haizeak eta Ezpelura elkarrekin antolatuta menopausiariburuzko solasaldiak burutzen ari dira Sunbillako eskolan. Lehendabiziko saioa astearte honetan egin dute. Hemendik aitzin, azaroaren 23an, 25ean eta 30ean egingen dira, arratsaldeko 4,30etatik 6,30etara.

Solasaldi hauek menopausia zer den, emakumea nola sentituko den, norbere burua zaintzen edo tratamenduren bat beharko ote duen jakiteko baliagarriak izanen zaizkie 40 eta 55 urte arteko emakumeei.

roz-Elizondoko zuzendariak zioenez, «Iruñean ez gaudenontzat ona da beraien honat hurbiltzea eta gure kezka ezagutzea».

SALDIAS

NA-170 eta herrira doan bidearen arteko lotura hobetzea eskatu dute hamabost udalek

Trafikoa herritik desbideratuko omen da, errepide nagusiko lanek irauten duten bitartean

TTIPI-TTAPA

Saldiasko Udalak, Doneztebe eta Leitza lotzen dituen NA-170 errepidea eta Saldiasera doan bidearen arteko lotura hobetzea eskatu dio Nafarroako Gobernuari. Eskari honekin bat egin dute hamabost udalek (Leitza, Ezkurra, Era-

tsun, Zubieta, Ituren, Elgorriaga, Beintza-Labaien, Urrotz, Donamaria, Oitz, Doneztebe, Sunbilla, Bertizarana eta Baztan).

NA-170 ERREPIDEA ITXIA SALDIAS ETA LOZABIAN ARTEAN

Leitza eta Doneztebe arteko errepidearen za-

ti bat moldatzeko lanak eman ditu berriki Nafarroako Gobernuak. Lan hauek egiteko Saldias eta Lozabian artean errepidea moztu egin beharko da eta trafikoak Saldiasko bidea hartu beharko du, handik Beintza-Labaien barna Doneztebera joateko.

Pedro Urrutia Sal-

diasko alkateak adierazi duenez, oraindik ofizialki ez dakite trafikoren desbideratzea herritik egingen den edo ez. «Ez zaigu normala iruditzen dagoeneko lanak emanak izatea eta oraindik saihasbide egoki bat ez egotea». Gainera, Saldiasera doan pista arras egoera txar-

rean dago Urrutiaren ustez. «Zolaberrituko dutela aditu dugu eta trafikoa semaforoen birtartez arautuko dela, baina guk errepide ona egitea nahi dugu. Izan ere, egunero 1.600 ibilgailu igarotzen direla bide honetatik, eskola eta lan garratiokoak barne».



Doneztebeko feriak azaroaren 19an

San Martin ondoko ortzirala. Aspaldiko urtetan bezala, Doneztebe, Malerreka eta inguruko jendeak bilduko dira Donezteben. Eguerdian bertso saioa eta arratsal-

dean, Nafarroako lehen mailako eta Euskal Herriko jubenilen aizkora txapelketen finalak. Tartean aziendak, saltzaileak, aspaldiko lagunak... egun batez denak elkartuko dira Donezteben.

Nerea
Oinetakoak

FERIAK
ONGI PASA
ITZAZUE

San Miguel 2
DONEZTEBE

BAZAR100

Inportazio produktuk, opariak, etxerako ontziak, landare naturalak eta artifizialak

Intzaskardi 5, DONEZTEBE • Giltxaurdi 12, ELIZONDO

CASA COSTIZ

zapatadenda
papertegia
estankoa

Tel eta Faxe: 948 450 289
e-mail: costiz@teleline.es
Parrokia 17 • DONEZTEBE

ARRINTZA

Aurtengo feriak umore ederrean pasatu

Merkatarien karrika 28
© 948 451826
DONEZTEBE

OSTATUA

Amaya

- Lurrindegia •
- Apaindegia •
- Heapaindegia •

- Denboraldiko osagarriak
- Bitxidenda
- Estetika:
Aurpegiko tratamenduak, Peeling, oxigenazioa
- Ile-kentze elektrikoa edo argizariarekin
- Makilaia

Amezti karrika z/g • © 948 450163 • DONEZTEBE

Lancaster
zure oparia

Idiazabalgo kontseilua osatzeko hauteskundeak egin dira aste honetan

Gehigarri hau eskuetan duzunerako burutu izanen dira Idiazabalgo Jatorri Izendapeneko Kontseilu Arautzaileko hauteskundeak. Azaroaren 17an burutzeakoak ziren eta kontseiluko hamabi kide ziren hautatzekoak (sei artzain eta sei gasnagile). EHNE eta UAGN sindikatuen iritzia bildu dugu.

Euskal Herriko Nekazarien Elkarte sindikatuak (EHNE) bi ordezkari segurtatuak ditu kontseiluan. Artzain gasnagileen azpizentsoan sindikatu honek bakarrik aurkeztu zituen hautagaiak, beraz bokalak izanen dira bi ordezkari hauek. Gasna produktzaileen azpizentsoan UAGNk ere bere hautagaiak aurkeztu ditu Nafarroan eta SAT-Nervionek Euskal Komunitate Autonomoan.

EHNE sindikatuen asmoek hiru ildo segitzen dute: alde batetik, Idiazabal Jatorri Izendapenak latxa eta karrantzana ardi arrazen esklusibitatea mantentzea. Mikel Lasarte hautagaiak azaroaren 10ean



egindako prentsaurrekoan adierazi zuenez, «latxa arrazaren produktzioari esker lortzen da produktu desberdina eta kalitate handikoa ekoiztea». Bertzetik, kalitatekontrolak sendotu nahi dira eta

jatorri izendapeneko gasnak egitera bideratua dagoen esnearen eta hortik kanpo doaien esnearen prezioen arteko diferentzia lortzea.

Nafarroan 109 artzainek par-

SALDIAS

HARATEGIA

*Bertako baragi
frexkoetan
espezializatuak*

Karrika Nagusia 21
© 948 450210
DONEZTEBE



**ALBAITERITZA
ZENTRU TEKNIKOA**

Juan Ramon Ostiz

Karrika Nagusia 1, © 948 45 05 91 - **DONEZTEBE**

**Aldabe
TAXIa**

*gorro-gorrea
eta bixi-bixia*

© 948 450687
© 910 213326

Parrokia, 10
DONEZTEBE



Elizagibela, 7 Behea
© 948 45 01 02
DONEZTEBE

**Ingelesa ikasteko
modurik errax
eta atseginena**

*Feria on batzuk
pasa!!!*

SUZUKI GRAND VITARA

MENDAUR MOTOR

Leitzako errepidea • © 948 45 03 33
DONEZTEBE

- Kotxea ITV pasatzeko prestatuko dizugu
- Mekanika eta elektrizitatea
- SUZUKI, NISSAN, MITSUBISI eta OPEL ibilgailuak
- Aukerako ibilgailuak
- Tapizeriak garbitzen ditugu
- Ezkontzetarako autoak apaintzen ditugu

te hartzen dute Idiazabal Jatorrizko Izendapenean, urtean 1'5 milioi esne litrotik goiti produzitzen dutenak. Kontseilukohamabi bokalietatik hiru bereko dituzte. Azkeneko hauteskundeetan hiru bokalak EHNEK lortu zuten eta aurten emaitza horiek errepikatzeke asmoarekin azaldu dira. 10.000 litro baino guttiago produzitzen duten abeltzainen artean Azpirozko Mikel Lasarte izanda hautagai; 10.000 eta 20.000 litro artean produzitzen dutenen hautagaia Arbizuko Gorka Flores izan da eta 20.000 litrotik goiti produzitzen dutenen artean.

Mikel Petrirena, Nafarroako EHNE sindikatuko Idazkari Nagusiak azaldu zuenez, «jatorrizko izendapena abeltzainaren zerbitzura dagoen tresna izan behar du eta ez bakar-bakarrik industriaren zerbitzura da-



goen tresna». Eraberean, Petrirenak jakinarazi zuen artzainek litroko 130 pezeta kobratzen dituztelabanaz bertze. Horren arabera, «izendapenak gas-

na komertzializazio egokibat izan dezan balio du, baina horregatik artzainek ez dute esnearengatik prezio hoberik lortzen. Idiazabalgo gasnak balio

erantsia badu, esnea ere horren arabera ordaindu behar da eta hori gaur egun ez da horrela».

Gasneak gasnagintzara bultzatzea, Idiazabalen

irudia hobetzea edo merkatuetan gasnaren presentzia sendotzea dira EHNE sindikatuak hauteskunde hauetan zituen bertze helburuak. ■

Ganbara
Oparia Dekorazioa
Nagusia 19
☎ 948 451921
DONEZTEBE

ZUBIKOA liburudenda
Testu liburuak • Eskola materiala
☎ 948 450295, NAGUSIA 5 - DONEZTEBE

Doneztebe
autoeskola
Feria onak pasa!
☎ 948 451 929
Leizarako errepedea, 2 behea • DONEZTEBE

Marierux
LEINTZERIA
Parrokia 11
Ttapa: 948 45 01 12
DONEZTEBE

RUIZ
okindegia
Autozerbitzua
☎ 948 45 00 37
Karrika Nagusia 3
DONEZTEBE

18
OLAIZOLA ANAIK
Monte Viejo ardoak
Cruz Campo Taldea
KELER Edari banatzailea
☎ 948 451 857 • 608 390 267
Aparan, 7 • DONEZTEBE

iBAi ONDO
Ostatua
Intzakardi
☎ 948 450123
DONEZTEBE

«Idiazabal Izendapena bertze arrazei zabaltzea artzainek erabaki behar dute»

Ez dezala inork pentsa UAGN Idiazabal Jatorri Izendapenera pretentsio elektoralistekin doanik. Jatorrizko Izendapeneko lista desberdinetara kandidatuak aurkezteko egin den lanaren arrazoi bakarra, benetan ardi esnez bizi diren Nafarroako eta Euskal Komunitateko abeltzainen geroak kezkatzen gaituela da. Bai Erronkariko Jatorrizko Izendapenean baita Idiazabalgoan ere esnea ematen duten artzainen geroa.

Idiazabal Jatorri Izendapenaren ospea, tradizioa eta lehia edozein dudatik kanpo dago. Argi dago ere bai, Jatorri Izendapen honen kalitatea eta promozioa Kontseiluak garrantzitsu behar duela. Eta horrexegatik, garrantzitsua da Kontseiluho-

netan abeltzainak izan daitezela beraien sektorearen iritzi, eskaera eta erreibindikazioak defendatzen dutenak.

Idiazabal Jatorri Izendapenean, Latxa-Karrantzana ardi arrazen eksklusibitateak eztabaidak sortu ditu eta sortzen jarraituko ditu. Hala ere industria eta abeltzain batzuk bertze arraza batzuen sarreraren alde egonen dira. Gai honen ikerketa sakona eskatzen du. Gai honetan UAGNren postura oso argia da: abeltzainek beraiek erabaki dezatela.

Berez egia da, nahiz eta erromantikotasun kutsua izan, latxa arrazako ardiak Euskal Herriko paisai guztietan aurkitu genitzakela. Bertako arraza dugu, gure lurraldeko mendietara egokitua eta guk biziki defendatzen jarraituko du-

guna. Horretarako, genetiko-ki hobetze lanean jarraitzeko UAGNk berriz ere datorren urteko aurrekontuetan diru kopuru haundiagoa eskaintzea eskatu du. Baina egia da ere, ardi esnetik eksklusiboki bizi diren abeltzainek, batzuk oso inbertsio haundiei esker, esne kantitate gehiago produzitu behar dutela beraien kredituak amortizatzeko, explotazioei eta abeltzain bizibideari biabilitate bat emateko...

Idiazabal Jatorrizko Izendapenean, Latxa-Karrantzana arrazako ardien eksklusibitatea defendatzen dutenek gero-gero perspektiba eta aztertze-ko gaitasunaren falta adierazten dute. UAGN ados dago Kontseiluak hartu behar duela erabaki garrantzitsu hau, baina erabakitzekeko momen-

tu ez dezala inork zalantzarik izan, produktoreen sektorea defendatuko dugula.

UAGNk ez badu gai eztabaidatsu honetan eritzirik ematen, gure abeltzain askoren ustetan sektorearen geroa eta beraien errentak batez ere ardi esnetik datozen abeltzain explotazio txikien jarraipena, beste arrazei bidea irekitzea aholkatuko lukeelako da. Beste arrazei bidea irekitzea sektoretik at dauden interesen alde egiten duela eta kanpoko esnearen ekarria sor dezakeela errate ademagojia hutsa da. Publikoa eta argia da, orain kanpotik ardi esne asko ekartzen ari dela berez Nafarroako artzainek ekoiztu zezaketenean eta gure gaztagiek esne horniketaren garrantia bat behar dutela epe



Bakero eta Sport arropa

Karrika Nagusia 7
© 948 451704
DONEZTEBE

MAITE ileapaindegia

GIZON eta EMAKUMEENDAKO
Solarium-a

Mourges Etorbidea 4, ☎ 948 451780 • **DONEZTEBE**

MAYLIN ostatua

Feriak ongi pasa

Parrokia 15, Tfnoa: 948 450 366 - **DONEZTEBE**



Purina

etor zaitez ikustera

- Ardi, ahuntz, behi, etabarren parasitoak hiltzeko pentsu bereziak
- Pentsu konpuestoak, luzerna eta zerealak
- Hegaztiak
- Laguntza animaliendako janaria
- Kaiola eta tolbak

Aparan Pol. 2, 3 • © 948 451845 • **DONEZTEBE**

MASTER Migelena Anaiak

Erlojudenda eta bitxidenda

Sukalde eta bainuko mogleak

Elektrogailuak eta sukalde tresneria

Zerbitzu teknikoak



Amezitia z/g • © 45 01 26 • **DONEZTEBE**

GIZASEME eta EMAKUMEENDAKO
BOUTIQUE

HONORIO TABERNA

© 948 450109

Merkatarien karrika, 29 • **DONEZTEBE**

motzean, geroari begiratuaz. Gaur egun dagoen zalantza hau Idiazabal Jatorrizko Izendapenera eraman dezakegu.

Nafarroako Gobernuaren datuen arabera, azkeneko lau urte hauetan Jatorrizko Izendapenetik kanpo egiten den gazta kantitatea gehitu egin da eta Jatorrizko Izendapenaren barruan dauden gazta produktzioa mantendu edo gutxitu egin da. Hona hemen alde-raketa: Jatorrizko Izendapenean 190 Tona gazta egin da eta izendapenetik 350 Tona.

Argi ikusten da, honelako Jatorrizko Izendapen baten esne faltak, Izendapenetik at egiten diren gazta kopuruaren gehitzea dakarrela, non ardi esneak ez du Nafarroakoa izan beharrik. Zoritxarrez, Jatorrizko Izendapenean esne faltak ez dakar esnearen prezioaren igoera artzaintzat.

Gure Jatorrizko Izendapen ospetsu honen hedatzeko posibilitatea, minimoetara gutxitu daiteke. Eta produzitzeko bolumen eskasarekin zailtasun haundiak leudeke es-



kaera guztiak hornitzeko, gaztak promozionatzeko bide berriak zabaltzeko... eta nahiz eta atal honetan gauza asko egiteko egon, industriekin itun bat egin ardi esnearen prezio minimo bat garantitzatzeko urte batzutarako kontratu baten bidez. Hau ere bertze atal

ezinbertzekoa da Kontseiluberriak garatzeko eta UAGNtik defendatzeko asmoa duguna.

Abeltzainek erabaki behar dute. UAGNk erabakitzen dutena defendatuko du. Gainontzeko guztia, esku sartze interesatuak eta egoskorak dira. Eta horren arrisku-

tsuak lirateke industriarenak nola ardi esnetik bizi ez diren iruzurtienak eta zaila egiten da ulertzea benetan zer defendatzeko asmoa duten. Sektoreko profesionalak ez behintzat...

UAGN


**ERLOJU
BITXIDENDA**
Lantegi propioa
© 948 451519
Merkatu karrika - DONEZTEBE

PICABEA
BOVTIQVE
Andre gazteentzako moda
© 948 450207 • Karrika Nagusia, 5
Eliza ondoan • **DONEZTEBE**


**Ibarburu
erretegia**
Iruña-Irun errep, 55.km
© 948 45 17 62
DONEZTEBE

LAKANBRA MOTOAK
Husqvarna motozerrak aukeran
Parrokia 18, © 948 450082
DONEZTEBE



Eguneko menua
Karta
Gosariak
Rinto bestak
Romunioak
Koadrilla gñuriak, bazkariak...
Astearte eta asteazken
bazkalondotik aitzin itxita

Bertsolariak eta aziendak eguerdian aizkolariak arratsaldean


Alferrik ariko da Doneztebeko ferien egitarauan –Elizondo eta Lesakakoetan bezalaxe–aldaketak bilatzen duenak. Urtero-urtero gisa bereko egitaraua izan du: goizean aziendan eta salzailean postuetan begiratu eta, behar bada, zerbait erosi. Eguerdi aldera, leku berean bertsolarien saioa aditu –aurtegoan Xebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano izanen dira tabladu gainean– eta gero, lagunartean edo familiarekin bazkaldu. Bazkalondoa giroteko modu polita eskaintzen dute Doneztebeko eskolako pilotalekuan, azken urteotan beti izan baita aizkolari saioaren bat, Nafarroako Herri Kirol Federazioaren eskutik.

Joan den urtean, Euskal Herriko bigarren mailako aizkolari txapelketaren finala ikusi ahal izan zuten Doneztebera joan zirenek eta ortzirailean ez da guttiago izanen. Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketaren finala jokatu baita, arratsaldeko 5,30etatik aitzinera. Gaur egungo txapeldunak, Donato Larretxeak ez duparte hartuko. Honela, Mikel Mingegia zubietarra izanen da faboritonausia. Euskal Herriko txapelketaren finalean erakutsitako sasoiari eutsi ba-

dio bere seigarren txapela janzteko moduan izanen da, 50 urterekin.

Doneztebeko plazan izanen dituen lau aretuek ez dutesekulan txapelik jantzi. Etxarri-Aranatzko Floren Nazabal, Olagueko Antonio Senosiain, Leitzañ bizi den Antonio Jaunarena zubietarra eta Lekunberriko Jose Juan Barberena ariko dira lehenbizikoaren bila. Hamar enbor moztu beharko dituzte bortz aizkolariak: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko.

Aitzinetik, Euskal Herriko jubencil mailako txapelketa ere jokatu da, kirol honetako harrobia zertan den ikusteko modu polita. Hiru aizkolari ariko dira lehian: Arabako Javier Yabara, Gipuzkoako Arkaitz Iriarte eta Arraiozko Asier Larretxea, Patxi Larretxearen hamazazpi urteko semea. Lau 45 ontzako eta bi kanaerdiko moztu beharko dituzte hiru gazteek. Nafarroako Herri Kirol Federazioak, Doneztebeko Udala eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren laguntzaz antolatu du jaialdia.



**MARTIN
HARATEGIA**

*Bertako
aretxiak*

Parrokia 1
© 948 450160
DONEZTEBE



*Dastinazazu
gure piztuasale*

Parrokia 21 • **DONEZTEBE**

JUAN J. PIKABEA

**AUKERA HAUNDIA
TRAJE EGINETAN**

**NEURRI HAGITZ HAUNDITAN
AUKERA ZABAL-ZABALA**

AMEZTIA Z/G • **DONEZTEBE**
TFNOA: 948 45 16 70

**Marka hauetako
galtza bakeroak:**

• Bonaventure,
Lois, Mendozas,
Mathew's, Lotus...
64. taila bitarte.



Amezti 7, © 948 45 02 71 - **DONEZTEBE**

Presio bidezko garbiketa:

- Kotxearen azpialdea garbitu
- Zikina beratzeko aparra
- Argizariaren distira

DONEZTEBE GASOLINDEGIA

Leitzako errepidea, 49
Tel.: 948 451679
Fax: 948 450857

Barnealdeko garbiketa:

- Aspiradora
- Alfonbrak garbitzekoa

Auto-garbitzaile automatikoa

AXA
SEGUROS
**Aseguru
klase
guziak**

- Ibilgailuendako aseguru
- Etxebizitzako aseguru
- Arrantza eta ehizarako aseguru
- Komertziorako aseguru
- Bizitza Aseguru

*Feria zoriontsuak
opa dizkizuegu*

**TELLETXEA
MOBLEAK**

Rosa Seminario z/g • Tfnoa: 948 45 02 58 • DONEZTEBE

Eder 

Ederki 

Tailerak

Citroen agente ofiziala

Peugeot agente ofiziala

Grua zerbitzua 24 ordutan
Mekanika • Elektrizitatea • Txapa • Pintura
Hidraulikan espezialistak



Donezteben

Leitzako errepidea - Tfnoa: 948 45 05 25

MENDI
ALMACENES TXURI 


- Etxegintza eta burdindegi materialak
- Zeramikak (Venis, Porcelanosa, Aparaci, Porcelanato)
- Teila frantsesak (Guiraud, TBF)
- Egurrezko sukaldeak
- Tximiniak

© 948 450305 / 948 450068
DONEZTEBE



Bortzehun urte beteko dituzte Lesakako feriek

Aspaldian ez ziren hain berandu egin Lesakako feriak. Aurten, abenduaren 2an izanen da egun haundia. Ohi baino beranduago etortzeaz gain, izanen du bertze berezitasunik: aurten bortzehun urte betetzen dira Lesakak feria ospatzeko eskubidea Nafarroako Erregeen eskutik jaso zuenetik. Hori dela eta, ekitaldi berexirik ere izanen da aurtengo edizioan.



LESAKAn gaituzu zure zerbitzura

Plaza Berria, 10 • ☎ 948 637335



Garbi - Leku
tindategia

Arropa, larruak, tapizak, etab... garbitzen ditugu



ETXEBERRIA
OSTATUA

Plaza Zaharra • Lesaka
☎ 948 637700

Plaza aziendaz, jendez eta saltzailez gainezka. Argazkia 1997koa bada ere, aurten irudi berdintua errepikatuko da.

Idoia TELLETXEA

★ **IZARRA** ★

OKINDEGIA

Ongi pasa ferietan!

Plaza Zaharra, 13
☎ 948 63 78 55
LESAKA



SIÑA

Gizon eta emakumeen jantzidenda • Bitxiak

Albistur 3, behea • ☎ 948 637951 LESAKA

ETXARTE

bitxidenda
erlojudenda
Kirol Trofeoak

Albistur karrika, 1
☎ 948 637205
LESAKA

Bortzirietako azienda onenak abenduarien 2an Lesakan



Aziendak eta saltzaileak plaza inguruan eta herri kirol saioa plaza barnean. Urteroko ohiturak mantenduko dira aurten ere. Idoia Telletxea

Nafarroako Erregeek urtean behin hamabortz eguneko feria eta hamabortzero bertze feria egun bat burutzeko eskubidea eman zioten Lesakari 1499. urtean. 500. urteurrena ospatzeko zer bait berezia egiteko asmoa zegoen – argazki zaharren erakusketaren bat edo –, baina hau idazterakoan oraindik ez da deus zehaztu.

Honela, asteazkenean Merkatu Eguna ospatuko da. Ez da jende aunitz mugitzen egun

honetan, baina azken zortzi urteotan bezalaxe, arratsaldeko 6,30ak aldera ajoarriero lehia-keta antolatu du Beti Gazte elkarteak. Gero, Herriko Etxeak musika paratuko du plazan. Tratu gehiegirik ez badago ere, Lesakakoa da eskualdean aziendak sarritzen dituen feria bakarra. Aurtengoan, ariak azkeneko urteetan eman diren berak izanendira. Azienda guzietan izanen dute dieta bat, plazara agertzeagatik bakarrik, baina one-

nek sari inportanteak izanen dituzte (30.000 pezeta arraza ezberdineko behi onenen kasuan). Sarionenak behi aziendak jasotzen badi-tuzte ere, zaldi eta behor-
rak dira azken urteotan gehien plazaratzen diren aziendak. Onenak

20.000 pezetako saria izanen du.

Plaza inguruan aziendak dauden bitartean, plazaren barnean herri kirol saioa izanen da. Ordu bete beranduago bertsolarien saioa hasiko da. Ondotik, azienda lehiaketaren sariak

banatuko dira. Goiz parteko ekitaldiak bazkari eder batekin akautzen dira normalean. Arratsaldean, berriz, pilota partiduak jokatu-
ko dira udal pilotalekuan. Arrats partean, Plaza Zaharrean dantzatzeko aukera izanen da. ■



**TELEBOTE
OSTATUA**

Feria onak pasa!

Arretxea, 10
Tfnoa: 948 637188
LESAKA



ESTHER ATEAK

Ate eta zerrailak
saldu eta jartzen ditugu

Zarandia 9 • ☎ 948 627584 • LESAKA

MARIXUS
Elektragailuak

ENETERREAGA ANAI-ARREBAK

Zarandia, 3 • ☎ 948 63 70 70 • 31770 LESAKA

- Bertako zerbitzuteknikoa
- Elektrizitatea eta antenak (parabolikoak, kolektiboak...)
- Iturgintza eta bainuak
- Biltegia



KASINO Ostatu-jatetxea

Plaza Zaharra 14 • ☎ 948 637152
LESAKA

LESAKA



Albistur 39 - H
Tel.: 948 637 870

Ongi pasa ferietan!



Doneztebe
eta
Lesakako
ferien berri
ttipi-ttapa
telebistan
Ez galdu!

Iñaki OLAIZOLA

- ELEKTRIZITATEA OROKORREAN
- MUNTAIA ELEKTRIKOAK
- ALARMA ETA PORTERO AUTOMATIKOAK

Bittiria 39 • LESAKA
☎ 948637405 -670 417499



BERRIZAUN TAILERRA

LESAKA GASOLINDEGIA

- Autoen konponketa
- Errebisioak
- Auto erabilien salmenta

Tel. 948 63 74 60 • Albistur 57 • LESAKA



LATSAGA EMANALDIAK

Tel/ Faxes: 948 637546
Mugikorra: 609 47 72 77
Iparraldetik: 00 34 609 477277

MULTIMEDIA / DATUAK / BIDEO PROIEKZIOAK
SISTEMA GUZTIAK

ERRESOLUZIO ETA KALITATE HANDIKO APARAILUAK

- Kultur ihardunaldiak
- Biltzarrak
- Mintegiak
- Erakusketak
- Feriak
- Jaiak
- Zinea
- Bideo emanaldiak
- TBko emanaldiak
- Bideo Spotak
- Karaokea (euskaraz)
- Heziketa zentruetan
- Auditorioetan
- Lantokietan
- Elkartean
- Zine aretoetan
- Topagunetan
- Kontzertuetan
- Dantza lekuetan
- Atari zabalean
- Akanpadetan
- Gazte aretoetan...

HEZIKETARAKO EDOTA AISIALDIRAKO ERA GUZTIETAKO EMANKIZUNAK



Plaza Zaharra 14 • ☎ 948 637721 • LESAKA



Juan Arana 10 • Tel.: 943 615 848 • IRUN

Eguberrietako erosketak egiteko... Egun-eguneko moda

ZURE GUSTUKO MARKEKIN:
Levi's
Dockers
Liberto
Custo



FAGOAGA HARATEGIA

Albistur, 19 • Tfnoa: 948 63 78 69 • LESAKA

MIKELAJAUREGI *Arraindegia*

© 948 637046 - Albistur 21 - LESAKA

Juanjo ERRO

Zurgindegia lanak
orokorrean

Moble zaharren
konponketa

© 948 637 862

Alan-Zahar - LESAKA

A. T. O.



OTXANGO S.L.

GARRAIO AGENTZIA

ESTATU BARNEKO eta ESTATU ARTEKO GARRAIOAK

• Antoiu 23 • Behea

• 31770 LESAKA

• Tfnoa: 948 627644

• Faxa: 948 627656

IRAZOKI

Janaridenda

Ongi pasa feriak

Arretxea, 12

© 948 63 70 85

LESAKA



IRUNen...

- Bainuak
- Sukaldeak
- Iturgintza
- Kalefakzioak
- Gasa-gasoila
- Griferiak
- Mobleak
- Manparak
- Hidromasaia
- Osagarriak

ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako Iturria Anaiak

ERAKUSKETA
Juan Arana, 1

Tfnoa. 943 61 17 67
Faxa: 943 61 44 64 IRUN

BILTEGIAK
Juan Arana, 3

URROTZ

ELGORRIAGA

Leurtzako urtegirako bidearen bi kilometro moldatuko dira

Urrozetik abiatu eta Leurtzako urtegira doan errepidea egoera kaxkarrean dago. Izan ere, sei kilometro hauei zola berria eman zitzaizenetik ez ziren inoiz moldatu. Kontuan hartu behar da milaka direla errepide honetatik igarotzen diren ibilgailuak: herriko eta Leurtzara egunpasa doazen bisitarien autoak, ehiztarien ibilgailuak, egurketa-rien kamioiak eta nekazal lanak egitera doazen traktore eta nekazal tresna ezberdinak. Honela, zolahondatzen joan da pixkanaka eta dagoeneko moldaketaren beharra zuen.

Lehendabiziko moldatuko den zatia, brearekin zolaberrituz, herri-ritik abiatu eta hasierako bi kilometroak izanen dira (0,5 kilometrotik 2,3 kilometrora), maldarik gogorrenak dutenak, hain zuzen. Herri-ritik hurbil bizi diren baserri-arrak ziren zati honen egoera kaxkarra gehien sufritzen zutenak.

Lanak lehiaketa bidez emanen dira eta proposamenak Urrozko Udalean aurkezteko epea astearte honetan akitu da. Haserako prezioa 15.669.326 pezetakoa da.

Jakina denez, Nafarroako Gobernuarekin komenioa sinatua dute Urrotz eta Beintza-Labaiengoudalek. Honela, udan Leurtzako urtegia zaintzen duten langileen soldatarekin gertatzen den bezalaxe, Iruñetik ordainduko dute errepidearen moldaketa lan hauek oso-osorik.

Herriko Ostatua hartzeko lehiaketa egin du Udalak

Elgorriagako Herriko Etxearen behe-itiko solairuan dagoen ostatua hartzeko lehiaketa-rako deia egin du Udalak. Ostatua urtebetere-

ko emanen da, baina epe hori luzatzeko aukera ere izanen da. Interes adunak abenduaren 1eko goizeko 11ak baino lehen aurkeztu behar-

ko dituzte beraien proposamenak udal bulego-etan. Horretarako, behin behineko fidantza bat jarri beharko dute, 50.000 pezetakoa. Eskaintza onartua bada, behin betiko fidantza 150.000 pezetakoa da.

Hileroko errenta 25.000 pezetakoa (gehi BEZA) izanen da guttienez. Ordaintzeko prest dagoen errentaz gain, proposamen berriak sartzen ahal dira eskaintzan, Udalak aztertu eta kontuan har ditzan.

INBERTITU BURTSAN ARRISKURIK GABE

ndize Bermatuen Rural Saskia

INBERTSIO BERMATUKO FONDOA

- **Balore Bermatua:** 1999ko azaroaren 30ean partizipazioak hartuko duen balorearen %100a bermatua.
- **Errentagarritasuna:** IBEX-35, DJ EURO STOXX-50 eta NIKKEI-225ren hileko batzbestekoaren balio handituaren %50a.
- **Berme Epea:** 30 hilabete.
- **Hartzeko epea:** 1999ko(**) azaroaren 30a.

* Kalkulatze era: 1999ko abendutik 2002ko maiatza arte hileko azken lan egunetan IBEX-35 indizearen balorea eta hileko azken lan egunetan NIKKEI eta DJ EURO STOXX-50 indizeen itxiera baloreen batzbesteko aritmetikoa. Batzbestekoa egiterakoan NIKKEI indizeak %50ko biran hartuko du, IBEX-35 eta DJ EURO STOXX-50 indizeak berri, %25ko pisua hartuko dute.

** Edo erabiltzaile estali arte.

Bermatuko indizeen Rural Saskia F.I.M., GESCOOPERATIVO S.A., S.G.I.I.C.-ak, gestio-erakunde inbertsio fondoa da. Entitate gordailuzaino Nafarroako Rural Kutxa da. Hartzeko epean komisio-rik ez du izanen. Rural Kutxaren bulegoetan argibideak ematen dituzten eskupaperak daude.

www.cajarural.com/navarra



NAFARROAKO RURAL KUTXA

GOIZUETA

Pilotari mundiala

Juantxo Apezetxeak Munduko bosgarren titulua eskuratu du Almerian

ESTEBAN AROZENA

1992an, hogeita bi urte bitartekoen Munduko txapelduna; 1994an eta 1998an Munduko txapeldun senior mailan eta 1995ean eta 1999an Munduko Kopako txapelduna. Hauetxek dira beste zientoka garaipenekin batera Juantxo Apezetxea pilotariaren karreari dizdira paregabea ematen dioten txapelak. Azkenekoa urriaren 16an Almerian eskuratutakoa, Lapurdiko Ezkurraren kontra jokatutako finalean.

Horrelako kurrikulurik aurkeztu dezaken

pilotaririk sekula santan izan ez baldin bada ere, Juantxori ez diote profesionaletan jokatzeo aukerarik ematen. Honek, pilota pixko bat baztertzera bultzatu du, ordu asko kentzen dizkion lan bati heldu beharrean aurkitu baita. Apezetxeak berak argi eta garbi esan zigunez, astean behin entrenatuz ezin omen **zaio** mailari luzaro eutsi, eta puntan ez egotekotan nahiago omen du hainbeste maitate duen kirol hau betirako uztea. Beraz, oraindik 28 urte besterik ez dituen arren, erretiroan pentsatzen hasia da Goizuetako pilotazale-



Joan den urtean, ongi merezitako omenaldia jaso zuen herrian Juantxo Apezetxea pilotariak. Oraingoan ere beste horrenbeste mereziko luke.

Artxibokoa

ei hainbeste poz eman dien kirolari haundi hau.

Menopausiari buruzko mintzaldiak

Menopausia sakonean aztertuko duten hiru hitzaldiantolatatu ditu he-

rrian Leitzaldeko Oinarriko Gizarte Zerbitzuak. Lehenengoa, azaroaren 15ean burutu zen, eta beste biak hurrengo bi astelehenetan izanen dira, hau da, hilaren 22an eta 29an. Iñaxi Lazkano, Arrixu Tolosa

eta Josune Otamendi psikologoen eskutik datoz, arratsaldeko 3etan eskolan ematen diren mintzaldi hauek. Berezik, 40 eta 55 urte arteko emakumeei zuzendutako badira ere, denentzat interesgarriak dira.

ARESO

Gaztain jatea egin zuten ume eta gurasoek

Eskolatik Berriozarrera joan ziren antzerkia ikustera

JUANA M^a SAIZAR

Urriaren azken ostiralean, hamabost egun aurretik guraso eta umeek bildutako gaztainak erre egin zituzten eta txistorrarekin batera afaldu egin zuten Pake-Toki elkartearen.

Bidea moldatua

Mendiko bi pista

konpondu ondoren soberan gelditutako diruarekin Mantrolatik Anosoneara doan bidea zolaberritu eta ormigoia bota du Udalak.

Eskolatik antzerkira

Azaroaren 5ean Berriozarko Mendialdea ikastetxe publikora Lehen Hezkuntzako ikasleak joan ziren,



Gezurra badirudi ere, pilota plaza pilotan aritzeko dela gogorarazi du Udalak.

Artxibokoa

«Eguzki mozkorra» kontzertua entzuterako. Eskolako kontzertuak 1999-2000 sailaren barnean Nafarroako Gobernu Hezkuntza

eta Kultura departamentuak antolatatu du.

Ganbara Musika igandean elizan

Udazkeneko Biraren

barnean, azaroaren 21ean, 11,45etan Ganbara Musika entzuteko aukerazanen da elizan, «Plazatik salarat» taldearen eskutik.

Lecta enpresa da Sarrio lantegiaren jabe berria

Kapitalaren %95a saldu du Torraspapelek

JOSEBA AZPIROZ

Sarriopapel lantegiak jabe berriak ditu, Torrask taldeak Torraspapelen %95a saldu baitio 96.000 milioi pezetatan Lecta enpresari (CVC CapitalPartnesen kapitala du gehienbat enpresa honek).


Lecta papeleratalde berriak Sarriopapel marka komertziala mantentzeko asmoa du. Leitza lantegia 6.000 milioi pezetako inbertsio plana prestatzen ari da, produkzioa handitzeko eta tresneri berria sartzeko asmoarekin.

Gaur egun 442 langile diru Sarriopapelek eta 1998. urtea 30.000 milioi pezetako fakturazioarekin itxi zuen (%54a esportaziora bideratua), 148 milioi pezetako irabaziek.

Aurten 33.000 milioi pezetako negozioa egitea aurrikusi dute (%10 gehiago), baina pape-raren prezioak behera egin duenez, irabazi berdintsuak izanen omen dituzte.

Zinema denboraldi berria hasi da

Aurreko asteburuan zinemako denboraldia-ri hasiera eman zioten, "Flores de otro mundo" pelikularekin. Asteburu honetan "La trampa" - Sean Connery, Catherine Zeta Jones- izenburukoa emanen dute eta datorrenean berriz, "Hoy empieza todo" - 1999ko Berlingo zinemaldian Nazioarteko Kritika saria eta Do-



Denboraldi berriari ekin diote zineman.

Artxibokoa

nostiako zinemaldian Ikusleen Saria-. Esan behar bolondres gehiagoren beharraren deialdiarikasuegindalau talde osatzeko adina jende bildudela. Bestalde, aurreko denboraldietatik aldaketa pare bat egin dituzte. Alde batetik sar- rera 500 pta. kobratu- ko dute eta bestetik, emanaldiak ostiral eta larunbatetan, gaueko 10'30etan izanen dira (beraz, igandekoa kende dute).

Udalak hartutako erabakiaren arabera Euskal Herriak du hitza

Udalak urriaren 29an ospatutako Batzarrean, EH eta Eako zinego- tziek "Euskal Herriak hitza libreki hartu behar du eta horretarako oztopo guztiak gainditu behar ditugu" aldarrikatu zuten. Horre-

tarako espainiar eta fran- tziar indar armatuak Euskal Herritik kanpo- ra geratzea ezinbeste- koa dela baloratu zuten eta gainera ez direla on- gi etorriak herrian eta lehenbailehen alde egin behar dutela jakinaraz- tea erabaki zuten.

Mendi taldearen izen eta logotipo lehiaketa

Leitza sortu den menditaldeak izena eta logotipoa behar ditue- nez, lehiaketa antolatu dute. Lanak Aurrera el- kartean, Maimur edo Astiz liburudendetan utzi behar dira abendu- arren 3a baino lehen, gisa honetako lehiaketa- tetan erabili ohi den mo- duan. Lehiaketara aur- kezten diren lanetan nahitaez mendi talde- arantzako logotipoa aur- keztu behar da. Izena- rrena ez da nahitaezkoa

izanen, baina baloratu- ko da. Lanaren tamai- na, gehienez ere folio batekoa izanen da eta koloretan (hiru ge- hiezez) nahiz txuri-bel- tzean aurkez daitezke. Mendi taldeak izenda- tutako epaimahai batek aukeratuko du bere us- tez lan egokiena izan dena eta abenduaren eginen den taldearen aur- kezpenaz adarduko du. Irabazleak, mendi tal- dearen urtebeteko kuo- ta eta 2000. urteko fe- deratu-txartela dohai- nik izanen ditu.

Nartxi Sarakegi Memorialeko larunbatean

Larunbat honetan, azaroak 20, arratsalde- ko 5etan, Nartxi Sarake- gi zenaren omenez jo- katzen ari den harrija- sotze txapelketaren kan- poraketa burutuko da Amazabal pilotalekuan.

flash

❖ Eguberrietako begiraleak

Eguberrietan hau- rrekin tailerrak anto- latzeko begiraleak beharko direla eta, Euskara Zerbitzuak hilaren azken aldera hauek kontratatzeko deialdia zabalduko du. Argi ibili.

❖ Gazteak eta euskara irrati tertulia

Azaroaren 18an, gaueko 9etan, Mar- mari Euskara Tal- deak antolatutako irrati-tertulia izanen da. Tertulian Leitza- ko gazteak "Gazteak eta euskara Leitza" gaiari buruz hitz eginen dute.

❖ Euskararen legea

Azaroaren 30ean, arratsaldeko 8etan, Euskara Batzordeak eta Oinarriak talde- ek deituta, bilera ire- ki bat egingen da Udaletxean "Eus- kararen lege berria" eskatzeko egingen den kanpaina aurkezteko.

❖ Ipuinak kontatzeko teknikak

ikastaroa hilaren 15, 16, 17, 22 eta 23an, goizeko 10etatik 12ak arte egingen ari dira.

❖ ETB-DV pilota txapelketa ostiralean

Azaroaren 19an, ETB-DV txapelke- tako bi partidu joka- tuko dira Amazabal pilotalekuan, jubenil eta senior mailako bana.

❖ Asketa abesbatzek

(bi taldeek) eman- dia eskainiko dute la- runbatean zineman, arratsaldeko 8etatik au- rrera.

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak hasiak dira urteroko ateraldiekin

Abenduan mendian hildako kideak gogoratuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Elizondotik Burgeterako zeharkaldia eta Harrikulunkarako ateraldiarekin hasi dute Baztango Mendigoizaleek denboraldia, udako atsedendialdiaren ondotik. Aitzinera begira ere zehaztuak dituzte ateraldiak: igande honetan, azaroak 21, Azaldegira ganen dira, Iruritatik atera eta Iruritarabueltatuz. Azaroaren 28an Larratzura ganen dira, Arraioztik abiatuta.

Urterobezala, abenduan mendian hildako mendigoizale baztandarrak gogoratuko dituzte. Abenduaren 19an Legatera igainen dira, Gerardo Plaza omentzeko eta abenduaren 26an Auzako kaxkora, Peio Etxart eta Ramon Jaurena gogoratuz.

Elkarte berria prestatzen ari dira Anizen

Orain dela urte pare bat, aniztarrak biltzeko txokorik gabe gelditu

eta elkarte berri bat egi-teaerabaki zuten. Obrak dagoeneko hasi dituzte, eta San Jose egunerako biltokia martxan jartzea espero dute. Bazkideak, etxeka eginen dira eta momentuz 12 baldin badira ere, gero gehiagosartzea espero dute. Gan den abuztuaz geroztik 6.000 pztako kuota ordaintzen du etxe bakoitzak. Aurrekontua 16 milioi pezetakoa da. Bertzalde, elkartearen beheitiko aldean, komunak eta dutxak izanen dira eta herriko batzar-tokia ere prestatuko da.

Oihan aprobetxamendua Otsondo Txiki eta Artetan

Balleko Udalak enkante bidez salduko ditu Arteta eta Otsondo Txikiko 2.312 pinuren aprobetxamendua. Pinu hauek 1.540 metro kubiko zur eta 499 metro kubiko su-eguremanen dute. Hasierako prezioa 12.773.627 pezetakoa da eta proposamenak



Lekarozko Institutuko ikasleek Gazteendako Ekologiaren Lehen Jardunaldietan parte hartu zuten

Urriaren 27an, Lekarozko Institutuko DBHko laugarren mailako ikasleak Iruñean izan ziren Gazteendako Ekologiaren I. Jardunaldietan parte hartzen. Eskoziatik etorritako bi emakumek Ekoherri bat zer den azaldu zieten. Helburua, ekologiaren arazo nagusia gizakien arteko harmonia eza dela jakinaraztea zen. «Horrexegatik komunikazioa sortzeko bideak landu genituen» diote ikasleek.

azaroaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

Untxi eta erbi ehizia zabalik

Baztango Ehizi Elkartek jakinarazi duenez, abenduaren 31 arte zabalik egonen da erbiak eta untxiak hiltzeko garaia. Ortzegun

eta igandetan ehizatu ahal izanen da eta koardrila bakoitzak eguneko untxi eta erbi bat botatzen ahal du gehienez.

Mexikoko lehendakari gaiaren emaztea baztandarra

Mexikoko hauteskunderako lehen itzu-

lian garaile suertatu den Francisco Labastida, PRI alderdiko hautagaiaren emazteak, Maite Uriarte Castañedak, Baztango arbasoak ditu. Bere aita Juan Uriarte elizondarra zen. Elizondon aunitan izan da, Baldomera izeba eta Tedi Fernando, Kuki eta Tedi lehengusuak bisitatzen.

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
 Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA

 JAIME URRUTIA, 24
 TFNO. 580312
 ELIZONDO

Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

Eskisaroi jatetxea
 Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

Ordokiko industrialdeak 24 milioi pezetako dirulaguntza jaso du

Industria Departamenduak eman dio Balleko Udalari

TTIPI-TTAPA

Balleko Udalak Arizkungo Ordoki auzoan egin nahi duen industrialderako 24 milioi pezetako dirulaguntza jasodu Nafarroako Gobermuko Industria, Komertzio, Turismo eta Lan Departamendutik.

1999. urteari dagoia dirulaguntza honek eta bi zatitan banatuko da. Alde batetik, industrialdea egiteko beharrezkoak diren proiektuak idazteko aurrekontuaren %70a diruz lagunduko da. Honen aurrekontua 6.605.534 pezetakoa dela kontuan hartuz, 4.623.874 pezetakoa jasoko ditu Balleko Udalak.

Bertze aldetik, 19.415.394 pezetakodirulaguntza emanen du Industria Departamenduak urbanizazio lanak ordaintzen laguntzeko. Lanen zuzendaritza teknikoa eta Industria Departamenduaren ustez lurak erosteko ordaindu beharko dena kontuan hartuz, aurrekontu osoa 97.076.969 pezetakoda. Nafarroako



Baztan Ikastolaren pottoka Erratzura

Baztan Ikastolak, urtero bezala, pottoka bat zokketatu du Elizondoko ferietan. Zenbaki saritua 4133 izan da eta Erratzuko Aldakotzeko nagusie den Javier Sukilbide izan da behorra eraman duena. Zorionak Javier!

Gobernuak, beraz, kopuru horren %20a ordainduko du. Bi dirulaguntza hauek ez dira itzuli beharrik izanen, baina kobratzeko, urteak akitu baino lehen aurrekontu behar dira gasteen

ziurtagiriari.

Gai honen inguruan, irailaren 24ko batzarrean galdera batekin zuten Leopoldo Jaen, UPNko zinegotziak. Bere erranetan, Ordokiko urbanizazioak ehun milioi

pezetatik goitiko aurrekontua zuen eta Udalak 43.874.800 pezetako abalak bertzerik ez zituen hori ordaintzeko. «Nondik aterako da gainerakoa?» galdetu zuen Jaenek.

Alkateak urriaren 22ko batzarrean eman zuen erantzuna. Abaletaz gain, Industria Departamendutik aresitan aipatutako dirulaguntza eta Cederna-Garalur erakundeak emandako hiru milioi terdiko laguntza dago. Naberriko lurak 23 milioitan erosi eta 27tan saldu zirela kontuan hartuz, bertze lau milioi eskuratu dira eta, azkenik, udalarenak ziren lur batzuk 18 milioitan saldu dira. «95 milioitan jartzeko gara modu horretan».

Udalak lurra gosta den prezioan salduko du, metroa 4.000 pezeta inguruan. «Helburua ez da salmentatik dirua ateratzea industria garapena bultzatzea baizik».

Personaiak

Hamar urteren ondotik berriro Baztan futbol taldearen atepean

Baztan futbol taldeak ez du denboraldi hasera ona egin Hirugarren mailan. Hau idazterakoan azkeneko postuan daude. Halere, berri pozgarririk izan da Giltxaurdiko taldean: duela hamar urte futbola utzi zuen Jose Javier Elizaintzin atezaina, berriz ere baztandarraren atepean jarri zen. «Haseran arraroa sentitu nintzen, neurriak eta galtzen baitituzu, baina 30 urterekin lasaiagoa zara. Arras kontent nago». Elizaintzin izan zen Baztan taldearekin 3. mailan jokatu zuen lehen atezaina. Geroztik, laxoan, futbiton etalasterka ari da. «Donostiako Maratoni Erdia ordu bat eta hoge minututan egin nuen. Ez dago gaizki».



Fco. Javier ELIZAINZIN

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, ☎ 948 580939
ELIZONDO

UDAZKENEKO ARROPAK

Galtzak, atorrak, trajeak, konjuntak, kamisetak, blusak, oihalak...

ESKULANGINTZAKO MATERIALAK

ORDOKI LIKOREAK

ERRETEGIA

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

Parrilan egindako haragi eta arrainak



La Asturiana

ostatu • jatetxea

Tfnoa: 948 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO

SOULE

Hileta artea

☎ 948 453 444
☎ 908 779 903
ARIZKUN



Herriko Etxearen omenaldia SPUC kirol taldeari eta Urrezko Ezteiak

Herriko Etxeak omenaldia egin dio SPUC kirol taldeari. Sari eta oroigarriak eskuratu dituzte kirolariek, ezkerreko argazkian ikusten ahal den bezala. Bereziki eskertu da Jean Iturria pilotazalearen lan haundia –argazkian, eskuinetik hasita hirugarrena, oroigarriarekin agertzen den lehena–. Eskuineko argazkian, berriki Urrezko Ezteiak ospatu dituzten Fagoaga jaun andreak ageri dira. Zorionak!

Argazkiak: Studio de la Nivelle

flash

Espaniola ikastaroa

Espaniola erakasten da astelehen arratsaldetan elkartetxean. Izena emateko deitu 0559541563.

Zikirolatz taldea Eurodisneyra

Eurodisney jostatze tokian izan da berriki Zikirolatz dantza taldea. Bi egunez, 30 gaztek bidaia egin dute Pariseko parke ezagunerat. Atsedena ondotik, dantza ikastaroak hasiko dituzte berri ere.

Karate

Karate kirola egin daiteke herrian. Interesa duenak deitu: 0559545663.

Neskak eskubaloinean

1982, 83 eta 84 urteetan sortu diren neskek eskubaloinean joka dezakete. Ekipan izena eman nahi duenak: 0559541563.

Margo erakusketa

proposatzen du bere etxean Anoitz andreak.

Herri Liburutegia

ideldia da astelehen arratsaldetan, 4,30etarik goiti, eta asteazken eta larunbatetan goizeko 10,30ak eta eguerdi artean.

“Adin Ederra” lehenagoko gazteen elkarteak indarrean dabil

Abendu hastapenean Miarritzera ateraldia egingen du

FRANCK DOLOSOR

Osasun ona du Adin Ederrak, lehenagoko gazteen elkarteak. 181 presunabiltzen ditu, lagunarteko egunak pasatzeko. Krakadak, bazkariak eta bidaiak egin dituzteaurten Landesetarat, Loiolarat eta Lourdeserat. Urte batez, hiru partaide zendu dira, bainan lau urrezko eta diamantezko ezteiak ere

ospatu dituzte.

Abendu hastapenean, Adin Ederrak Miarritzerat ateraldia izanen du. Antzerkia ikusiko dute batasuna-konpartaideek.

Akitania eta Euskadiko presidentak elkartuak

Akitania eta Euskadiko Autonomi Elkarte-konpresidentek elkar iku-

si dute berriki Bordelen. Badu hamar urte loturak badirela bien artean. Batzorde berria sortzea deliberatu dute Alain Rousset Akitaniako buru sozialistak eta Juan Jose Ibarretxe Gasteizko euskal gobernuko lehendakariak.

Ibarretxek ipar euskal herrian eskuara indar berritzeko plangintza behar dela argi utzi du. Akitaniak ez duela gauza handirik egingen ahal erran dio Roussetek. Ibarretxe laguntza osoa emateko prestazaldu da Bordelen iragan den bilkuran.

Intxauspe eta Piriniotako autobidea

Polemika handi apiztu du Michel Intxauspe deputatu eskuindarrak. Publikoki erran du Nafarroa trebeskalezaken autobiderik ez de-

la egingen Baigorri-Garazi aldean. Bertze proiektua bazen bere erranetan: lau lerrotako bidea Iruña eta Baiona lotzeko, Baztan eta Dantxarinean barna, eta trenbidea Erratzu eta Arroza artean.

Halakorik ez dela eraikiko deklaratu dute Paueko agintariek. Kontseilu nagusia halako proiektuen kontra da. Alain Rousset Akitaniaburua eta Dominique Voynet frantses ingurugiro ministro ferdeak ere kontra dira. Nahiz eta Intxausperi gustatuko litzaiokeen, ez da beraz bide zabalagorik egingen Dantxarinean.

Xanpun eta Basarri

Manuel Sein «Xanpun» bertsolari senperrari pena haundia egin dio Iñaki Eizmendi «Basarri» hil zela jaki-

teak. Gipuzkoako Errezilgoak 83 urte zitu. Bertsolari, euskaltzale eta irratilari ezaguna zen. Xanpunek dion gizon bat, jaun bat zela, errespetu haundikoa. Errexki mintzo zen eta lagunartean adixkide ona zuela aitortu du Xanpun senperrak.

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritzak
Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
© 948 631209 • BERA

SARA



Gan den urteko lehen mailako finalistak: Cazamayor eta Berho txapeldunordeak ezkerrean eta Urruñako Lisardi eta Suzanne txapeldunak eskuinean.

Pleka trinketeko pala txapelketa abenduaren hasieran abiatuko da

Gan den urtean 120 bikotek parte hartu zuen lehiaketan

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Abenduaren hasieran, Plekatrinketeko pala txapelketa abiatuko da. Bikoteen mailaren arabera lau multzo osatu dira. Joan den urtean 120 bikotek parte hartu zuten lehiaketan eta bortz hilabete iraun zuen. Izena emaitzeko deitu 0559542206 telefono zenbakira. Agian, aurtengoan saratar baten izena agertuko da irabazleen artean!

Errugbia solas

Errugbi sailan, Sarako Izarrako basurdeek beren bidea segitzen dute. Azken bi partiden emaitzak, ondokoak izan dira:

• Urriaren 31n: Sarak 16, Puyook 11. Azaroaren 7an, Sarak 6, Lesperonek 12.

Bigarren taldearen emaitzak: Urriaren 31n, Sarak 20, Puyook 11 eta azaroaren 7an, Sarak 22, Lesperonek 11.

Lehen faseko azken

partidak izanen dira ondoko asteetan jokatu direnak, lehena Lit et Mixen (14an), ondokoa Kanboren aurka (Animaniako zelaian azaroaren 21ean), eta azkena Ziburun azaroaren 28an.

Partida guzi horiek jokatu eta jakinen dugu nor sailkatuko den bigarren faserako, multzoko lehen hiruak baitira aterako, bertze multzoko lehen hiruen aurkakojatzeko. Saratarrek

partida guziak irabazi behar lituzkete aitzina joan nahi badute.

Sara, Azkaine eta Senpereko eskola

Bertzalde, joan den urriaren 31n, S.A.S (Sara-Azkaine-Senpere)errugbi eskolaren aldeko dantzaldia iragan da herriko polikiroldegian. 300 presuna inztzoko lehen hiruak baitira inztzoko lehen hiruen aurkakojatzeko. Saratarrek

tolatzaileenarabera, giro ona izan zen nagusi. Azpimarratu behar da, S.A.S. batasunak Senpere, Azkaine eta Sarako sei urtetarik hemezortzi urte arterainoko kirolari gazteak biltzen dituela. 6 eta 14 urte dutenen artean, 25 errugbilari saratar ari dira.

Ihizi kontuak

Urriaren 2an eman zioten hasiera uso sasoinari herriko usategietan. Omiasainduak arte 12 dozena bertzerik ez dituzte atxeman. Iaz baino ainitz guttiago, 27 dozena hartu baitzituzten xareetan. Aurtengoan, edo uso gutti dira, edo gure ihiztariak ez dira hain erne egon. Agian eguraldi txarrari eman beharko errua? Nork daki!

Basurde ihizia berriz, agorrilaren 15ean hasi zen eta hilbeltzaren 31 arte idekia izanen da. Jadanik, Sarako ihiztariak beratarren laguntzarekin zortzi basurde hilak dituzte.

Santa Katalinak

Urtero bezala, Santa Katalina ohoratua izanenda azilaren 28an Oihaldeko kaperan. Besta bezperatik hasiko da Ihalarko Baratzarteajatean, tripotx jatearekin. Ez dadarik usaia-ko arrakasta ukanen duela gau honek.

Kutxa Kutxa Kutxa
txa Kutxa Kutxa Kutx

Kidetzta berri bat!
 7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
 Tel. 0559203274 Fax 0559203237

Baztanen... **24 orduko zerbitzua**

ESTHER FUNERARIA
 Hilakutxak • Hilautoak • Eskelak •
 Dokumentazioak
 Beztitzeak, etab...

IRACHE TANATORIOA
 Iratxe Monastegia, 60
 Tfnoa: 26 09 54

Arizondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**
 Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**
 Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Maixan eta Veronique
 64310 SARA • Tél. 05 59 54 25 19

ARMUA Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
 © 948 599 131 - URDAZUBI

ZUGARRAMURDI

Baserri batzuetako bideak moldatu, leundu eta zolaberritu dituzte

Ezpeletara ibilaldia egin zuten herriko mendizaleek

MARGARI ETA KORO

Azken aste hauetan bide batzuen moldaketak egin dire: orain arte lurra eta harri piko-rra baizik ez zegoen Sansinera ailegatzeko maldan eta orain bidea ederki zolaberritua dago brearekin; hunekin batera, Etxuteatik abiatuz eta kanposantura ailegatzeko den bide zatia ere zolaberritu da, brea emanez. Horretaz gain, behe-itiko aldean zabal-tasun pittat eman zaio, kotxeak aparkatzeko toki egoki bat izateko. Herritik kanpo ere moldaketa lanak egin dire: Eltsospetik Iriarteko-bordara abiatzen den bi-

dea zabaldu eta leundu dute eta Loiara doaien zati maldatsuak ere zolaberritu dira, brea emanez.

Ezpeletara mendi ibilaldia

Gan den urriaren 31n herriko mendi taldeak Ezpeletarako mendi ibilaldia egin zuen. Aldi huntan ez zen herritik beretik oinez abiatu, Ainhoako harrobitik baizik. Hala ere, lau oroneko bidaia izan zen, Ibiltarien ustez, pullitena eta gogorrena zera izan zen: 100 metrotik abiatuz, 749 metrora igaitea, Mondarrain mendira, gero berriz Ezpeletara jausteko.



Mondarraingo kaxkoan ateraila da argazkia. Bertan ingelesaren fortalezaren erretoak gelditzen dire eta mila zimiztek kolpatutako gurutz bat... eta paisai zoragarria.

KULTURA

Zirimolan kultur hamabortzaldiko ekitaldiak Sara, Azkaine, Etxalar eta Beran

Xabier Elozegi borda izena duten etxeei buruz mintzatuko da azilaren 22an

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Zirimolan Kultur hamabortzaldiaren barnean ekitaldi zerrenda luzea antolatu dute Azkaingo Altxa Lili, Berako Gure Txokoa, Etxalarko Altxata eta Sarako Gaztetxea elkarkeak.

Saran, azilaren 22an, arratseko 8etan Xabier Elozegi saratarra borda izena duten etxeei buruz mintzatuko da Herriko Etxean.

Azilaren 28an, igandearekin, arratsaldeko 4etan, Omordia Gelan telesforo Monzonek idatzitako «Eneko Bizkai eta Maria Lorka» antzeslana ikusteko aukera izanen da.

Azilaren 30ean, arratseko 8,30etan Marikita Tambourin baigorriarra eta Joset Oxandabaratz azkaindarra euskal etxe-ari buruz mintzatuko dira Herriko Etxean.

Azkainen ere izanen da zer ikus eta zer adi-

tu egunotan. Azilaren 27an, larunbatarekin, arratsaldeko 4etan arratseko rallyko sari banaketa eta diapositiba proiektzioa egingen da Martzenian (Santa Marie eskolan). Ondotik filme laburrak izanen dira ikusgai, zine arratsean. Sartzea 20 Libera edo 500 pezeta gostako da. Taloak Azkaingo ikastolaren eskutik eta musika Martintxo taldearekin izanen da.

Abenduaren 3an, or-

tziralarekin, «Gazteak eta etxebizitza» mahaingurua izanen da arratseko 8,30etatik aitzinera Biltokian. Gabri Unsion (Iruñeko Gaztetxea), Unai Barrutabeña (Hernaniko okupa) eta Gorka Taberna (Azkaingo Gaztetxea) dira joatekoak. Solasaldiaren eramailea Xexili Foix, Gure Irratiko errataria izanen da.

Etxalarko Herriko Ostatuan abenduaren 4an egingen den bertso

kantu afarirako txartelak salgai egonen dira (90 Libera edo 2.250 pezeta) azaroaren 23tik abenduaren 2ra. Bertsoetan, Lesakako Xabier Silveira eta Iñigo Olaetxea eta Hendaiaiko Bertso Eskolako Amets Arzallus, Xumai Murua, Eneritz Zabal eta eta Mirentxu Artetxe ariko dira. Kuxkuxtu txaranga alaituko du afaria.

Bertze ekitaldiak, Bera eta Etxalarko berrietan ageri dira.

EZKONTZAK

Fernando Arraztoa Goñi eta **Blanca Esther Bikondo Goñi**, Elizondo eta Iruritakoa, urriaren 30ean.
Rafael Zabala Gonzalez eta **Beatriz Iparragirre Iturria**, Doneztebe eta Arantzakoa, urriaren 31n.
Francisco Javier Donazar Fernandez eta **Ines Elizalde Etxandi**, Iruña eta Zigakoa, azaroaren 6an.
Luis Fernando Martin Retegi eta **Gloria María Rodríguez Hincapié**, Bera eta Pereirakoa (Kolonbia), urriaren 23an.
Jesus M^a Zarranz Diez eta **Laura Arburua Bengoetxea**, Iruña eta Berakoa, urriaren 30ean.

JAIOTZAK

Amaia Etxenike Biguria, Iruritakoa, urriaren 21ean.
Pedro Santiago Etxenike Elizalde, Elizondokoa, urriaren 22an.
Beñat Zugarramurdi Santxotena, Erratzukoa, urriaren 30ean.
Idoia Elizetxe Lekuona, Erratzukoa, azaroaren 2an.
Goretti Ordoki Agirre, Berakoa, urriaren 26an.
Iban Telletxea Iribarren, Berakoa, urriaren 29an.

HERIOTZAK

Juan Agirre Karrikaburu, Urdazubikoa, urriaren 26an, 87 urte.
Miguel Barrenetxe Altzuguren, Azpilkuetakoa, urriaren 27an, 80 urte.
Victor Anthony Richardson, Ingalaterrakoa Zozaian, urriaren 27an, 44 urte.
Collin Almer, Ingalaterrakoa Zozaian, urriaren 27an, 42 urte.
Jose Maria Alberro Zugarramurdi, Arraiozkoa, azaroaren leian, 72 urte.
Jose Oteiza Tanco, Elizondon, azaroaren 2an, 85 urte.
Teresa Aramendi Agirre, Berakoa, azaroaren leian, 86 urte.
Mari Espelosin Mendiola, Sunbillakoa, urriaren 6an, 79 urte.
Candida Arraiago Esnal, Leitzakoa, urriaren 26an, 90 urte.
Begoña Jorajuria Eizagirre, Sunbillakoa, azaroaren 5ean, 28 urte.
Florentina Elizondo Bertiz, Arantzakoa, azaroaren 2an, 91 urte.

ttipi-ttapa internet

<http://www.ttipi.com/tepegua/ttipi-ttapa>
 E-mail: ttipi-ttapa@tepegua.com

ABOKATUA

 Bidasoa, 26 • © 948 631037 • BERA

H. Lopez iturgintza

 ■ Kalefakzioa
 ■ Gas instalazioak
 ■ Iturgintza Industriala
 ■ Oretzatze sistemak
 Tel.: 948 45 21 26
 Mug.: 617 34 99 44
 NARBARTE

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak
 Eztegara 41, Tfnoa: 948 63 08 99 - BERA

AMEZTIA
Jatetxea - Hostala

 Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
 Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE


Mari ESPELOSIN MENDIOLA
Bienvenida lankidearen ahizpa
 Bienvenida lankideak eta bere familiak zoritxarreko egun hauetan izandako saminarekin bat egiten dugu ttipi-ttapa fundazioko langileok.
 Sunbilla, 1999-X-06

DATUAK.....

1 Fran Puertas ordiziarra da sortzez. Berako Toki-Ona udal polikiroldegiko arduraduna da lanbidez.

2 Hamasei urte zituenetik aritu da rugby-an: Ordizia, Canoe, Baiona, Donibane-Lohitzune eta Atletico San Sebastian taldeetan jokatu du. Azken talde honetako jokalaria eta entrenatzailea da orain, Euskadiko Ligan.

3 Berriki burutu den Munduko rugby txapelketan parte hartu du Espainiako selekzioarekin.

4 93 aldiz jokatu ditu nazioarteko partiduak. Munduko txapelketan ez zen marka honetara ailegatu den bertze inor.

TESTUA:
AITOR AROZENA

➔ Fran PUERTAS Rugby jokalaria

“Nazioarteko ehungarren partidura ailegatzea marka ederra izanen litzateke”

Bere ilusio nagusia bete du Fran Puertas rugby jokalaria, 35 urterekin lehen aldiz Munduko txapelketan parte hartu baitu. «Esperientzia ederra izan da. Urte aunitz daramazkit rugbian jokatzeko eta Munduko txapelketan parte hartzeko ilusio horrek lagundu dit horretan. Munduko onenen kontra jokatzeko aukerazate sinestezina da eta hagitz kontent nago». Espainiako selekzioak hiru partidu jokatu ditu eta hiruak galdu dituen arren, eman dako itxurarekin kontent dago ordiziarra. «Hegoafrika eta Eskoziaren aurka aritu naiz, baina Uruguairen aurkako lehendabiziko partiduan ez nintzen aritu. Hagitz multzo zaila genuen eta gure lehenpartehartzea zenez, Uruguairi irabazteko asmoa genuen. Gero, azkeneko munduko txapeladuna izana zen He-

go Afrika eta azkeneko Bortz Nazioetako txapeladuna izan den Eskoziaren aurka, itxura ona ematea bertze helbururik ez genuen. Uruguairen kontra lehendabiziko partidua galdu ondotik, bertze bietan itxurako emaitzak egitera atera ginen eta hori lortu genuen». Bere ilusiorik handiena bete badu ere, aitzinera begira baditu asmo gehiago Puertasek: «Denboraldi honetan, Euskadiko selekzioarekin Espainiako Autonomia arteko txapelketa jokatu nahi dut eta nola naogen ikusi. Gero, Espainiako hautatzaileak kontuan hartzen banau, internazional gisara ehungarren partidura iristea gustatuko litzaidake, jende guttik lortu baitu hori mundu osoan».

HEGOALDE ETA IPARRALDEKO RUGBYA
Bialdeetako rugbiak

► «Iparraldean ttiki-ttikitatik hasten dira rugbyan jokatzeko eta garrantzi handiagoa ematen diote. Hemen berriz, futbolarekin kompetentzia handiagoa da.»



Rugbya mundu guziarentzat kirol egokia dela uste du Ordiziako Fran Puertas jokalaria.

ezagutu ditu eta Iparraldea eta Hegoaldearen arteko diferentzia nabarmen dela uste du. «Diferentzia handia da, bai. Tradizio aldeetik ere, Iparralden aspalditik jokatzeko dute eta bertze garrantzi bat du rugbiak. Eskolan, ttiki-ttikitatik hasten dira eta instalazio eta entrenamendu zelai ederrak dituzte, hori dena nabari da. Hemen berriz, bertze kirolekin eta, batez ere futbolarekin kompetentzia handia

dago. Rugbia kasik kirol ezezaguna da».

Kirol gogorraren fama baldin badu ere, mundu guziarentzat egokia dela uste du Ordiziakoak: «Kirol gogorra da bai, baina kirol guzietan izaten dira lesio eta ezusteak. Kirol osoa da eta pertsona bakoitzak bere ezautrenamendu zelai ederrak dituzte, hori dena nabari da. Hemen berriz, bertze kirolekin eta, batez ere futbolarekin kompetentzia handia

Nafarroako aizkolarien txapela jokoan Doneztebeko ferietan

- Mikel Mindegia zubietarra seigarrenaren bila
- Euskal Herriko jubenilen txapelketa ere jokatuko da

Doneztebeko feriak ez lirateke berdinak izanen aizkora aposturik gabe. Aurtan, Nafarroako lehen mailako txapelketaren finala eta Euskal Herriko gazte mailako finala jokatu-ko dira, arratsaldeko 5,30etatik aitzinera eskolako pilotalekuan.

Nafarroako Herri Kirol Federazioak, Doneztebeko Udala eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren laguntzaz antolatutako jaialdia jubenil mailako Euskal Herriko txapelketarekin hasiko da. Hiru aizkolari ariko di-

ra lehian: Arabako Javier Yabara, Gipuzkoako Arkaitz Iriarte eta Arraiozko Asier Larretxea, Patxi Larretxearen hamazazpi urteko semea. Lau 45 ontzako eta bi kanaerdiko moztu beharko dituzte hiru gazteek.

MINDEGIA SEIGARREN TXAPELAREN BILA

Nafarroako lehen mailako txapelketaren finala jokatuko da gero. Gaur egungo txapelidunak, Donato Larretxeak ez du parte hartuko lesio baten ondorioz. Honela, Mikel

Mindegia zubietarra izanen da faborito nagusia. Euskal Herriko txapelketaren finalean erakutsitako sasoiari eutsi badiobere seigarren txapela janzteko moduan izanen da, 50 urte beteak dituenean (gogoratu behar da Euskal Herriko txapelketan bertze hamar lortuak dituela).

Doneztebeko plazan izanen dituen lau aretuetan ez dute sekulan txapelik jantzi. Etxarri-Aranatzko Floren Nazabal, Olagueko Antonio Senosiain, Leitzan bizi den Antonio Jaunarena zubietarra eta Le-



Mikel Mindegia zubietarra Nafarroako seigarren txapelaren bila joanen da. Gainerako guzientzat lehendabizikoa izanen litzateke. Argazkia: Aitor

kunberriko Jose Juan Barberena ariko dira lehenbizikoaren bila. Hamar enbor moztu be-

harko dituzte bortz aizkolarietako lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko.


Asegarcek ez dio kontratua berri Jabier Errandoneari

Pilotan segitzeko asmoa duela adierazi du Errandonea gazteak

Sei urte terdiz profesional gisara aritu den Jabier Errandoneari kontratua ez berritzea erabaki du Asegarce enpresak. Errandonea II.k horrelako zerbait gerta zitekeenaren susmoa bazuen, lau terdiko txapelketan lehendabiziko partiduan kanporatu baitzuen Varelak. «Ni eskuko minekin nengoen

eta ez nuen ongi jokatu. Faborito nagusia izan arren partidua galdu nuen».

Halere, enpresaren jarrera ez dabatere egokia izan, azken orduan eman baitu erabakiaren berri. Lurraren Egunean, Errandonea eta Beloki anaien arteko partidua iragarria zegoen hasieran baina kontra-



Profesionalen eman dituen sei urteotan bina-kako partiduetan ongi moldatu da Errandonea II.a.

tua larunbatean akautzen zitzaionez, jaialdia aldatzea erabaki zuten.

Pilotari profesiona-

la izaten segitu nahi du Jabierrek, baina oraindik ez omen du eskaintzarik jaso.



❖ Lizuniagako XIX. Igoera

Iñaki Lopetegi pasaitarrak irabazi zuen Lizuniagako XIX. Igoera. 17'28" behar izan zituen proba burutzeko, Iruritako Angel Garatek baino hameka guttiago. Nesken artean Maika Ariztegi ittundarra izan zen garaile, 21'40"tan. Marisol Martinez beratarrak izan zen bigarren 26 segundutara. Beteranoetan, Iruñeko Jose Luis Guillen izan zen onena, 18'05"rekin. Junior mailan Mikel Jaurena eta Imanol Zubieta beratarrak hartu zuten parte.

AGENDA EGUNEZ EGUN

FERIAK

DONEZTEBE

► Azaroaren 19an

Xehetasunak erdiko gehigarrian.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► Azaroaren 19an

Piztiak. Kasino ostatuan. Arratseko 10etan.

► Azaroaren 26an

Mermaid (Iruñea). Kasino ostatuan. Arratseko 10etan.

BERTSOAK

BERA

► Azaroaren 19an

Egaña, Murua, Enbeita, Elortza, Elizagoien, Legarreta. Kultur Etxean. Labiaga Ikastolaren 25. urteurrena.

SUNBILLA

► Azaroaren 20an

Bertso afaria Ulibeltzak elkartearen, arratseko 9etan. Mañukorta eta Manolo Arozena bertsoariekin.

ERAKUSKETAK

BERTIZ

► Abenduaren 12a

arte Nafarroako baso-erakusketak buruzko erakusketak Bertizko jaurerrian. Antolatzailea: Aurkidi elkarte.

SOLASALDIAK

BERA

► Azaroaren 19an

arratsaldeko 6,30etan, "Euskara eta ideologia" Jabier Erizeren eskutik, eta "Euskararen egoera gaur egun Nafarroan" Karlos Vilchesen sekutik. lamotenean.

SUNBILLA

► Azaroaren 23, 25

eta 30ean Menopausiari buruzko hitzaldiak.

AGENDA PRAKTIKOA

TELEBISTAKO TXOKOA

ttipi-ttapa telebista

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRAILA
11:00	Berriak (erep.) Herriz-herri (erep.)	Berriak (erep.) Jokoa Solas	Berriak (erep.)	Berriak (erep.)	Berriak (erep.)
13:00	Berriak (erep.) Herriz-herri (erep.)	Berriak (erep.) Jokoa Solas	Berriak (erep.)	Berriak (erep.)	Berriak (erep.)
17:00	Berriak (erep.) Herriz-herri (erep.)	Berriak (erep.) Jokoa Solas	Berriak (erep.)	Berriak (erep.)	Berriak (erep.)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak
21:30	Jokoa Solas	Laburmetraiak		Zuzenean	Herriz-herri



Doneztebeko feriak TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

Jakinen duzuen bezala, azaroaren 19an egingen dira Doneztebeko feriak, eta TTIPI-TTAPA TELEBISTAK ez du hutsik egingen oraingoan ere. Iaz eskaini genizkizuen hango saltzaile eta erosleen kontuak, eta ferietako giroaren zati bat eraman genuen zuen etxeetara. Ortzirale honetan ere berdin egingen dugu.

Eta gogoratu abenduaren 2an ospatuko direla Bortzirietakoak ere. Ea bietan ere eguraldia lagun izaten dugun.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoa): 3.800 pta.
- Zerri gizona (95-100): 115,5 pta./kiloa.
- Zerramak: 80-85 pta./kiloa, bizirik.




❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
- Idixkoak: Pta/kg. Kanal
Extra555
1.koa535
2.koa520
- Urruxak: Pta/kg. Kanal
Extra570
1.koa550
2.koa535
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 18.000 eta idixkoak 28.000-30.000 Pta.
Mestizoak: urruxak 27.000 eta idixkoak 30.000-35.000 Pta.
- Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 410 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Whiskey koloreko gauak»

Paddy REKALDE

Txalaparta

Deustuarra dugu Paddy Rekalde. «Aizu, Paddy!» liburuaren ondotik, bere bigarren lana du hau, 16 kontakizun desberdinez osatua. Kontakizun hoiaren artean sartu ditu bere «apunteak» izeneko poesiak, alkoholaren eta emakumeen inguruko burutapen bereziak. Izenburuak adierazten duen bezala, gradu aunitzako ipuinak ekarri dizkigu bizkaitar honek, euskal literaturan ohikoa ez den estilo zorrotz

eta zuzen batez hornituta. Euskal Herrian eta Irlandan kokatu ditu istorioak. Gaiei dagokienez, lagunarteko solasaldiak, istorio bitxiak, larrutaldiak, eta alkohola dira mintzagai. Alkohol aunitz, gainera. Alde honetatik, Charles Bukowsky idazle estatubatuarra gogora etortzea saiestu ezinezkoa da. Harek bezala, hainbat pasadizo lehenbiziko pertsona kontatzen ditu Paddyk ere.

Euroari buruzko galdemoduak

NOIZ IZANEN DITUGU EUROAK ESKUTARTEAN?

2002. urteko hilbeltzaren 1etik aitzinera. Ordurarte nahitanahiez oraingo diruak erabili beharko dira diru truke guzietan.

Hala ere, dagoeneko indarrean dago Euroa moneta eskritural gisa, hau da, diru fisikoa eskutartean ibiltzea eskatzen ez duten operazio guzietarako.

ZER GERTATUKO DA KUTXAZBIN AUTOMATIKOEKIN?

Bezeroek ez dute inongo arazorik izanen, banketxe bakoitzak eginen baititu moneta berrira egokitzeko aldaketak.

ORAINGO DIRUTAN AURREZTEA ETA EUROTAN AURREZTEA GAUZA BERTINA DA?

Bai. Ez dago inolako diferentziarik. Moneta berriak ez die aurrezkiei kalterik eginen. 2002.eko urtarrilaren 1a arte kontuak pezetatan izanen dira, norberak Eurotara aldatzea eskatzen ez baldin badu behinik-behin. Egun hori ailegatzten denean, kontu guziak automatikoki egokituko dira moneta berrira.



Euro bat, Europako moneta desberdinez inguratua.

2002ko urtarrilaren 1a ailegatzten denean, kontu korronte guziak automatikoki egokituko dira Eurotara.



PEZETAK EUROTARA ALDATZEAN NOLABAITEKO KOMISIOA KOBRTZEN AHAL DIDATE?

Ez. Dohaintasun Printzipioak agintzen duenaren arabera, pezetak eurotara aldatzea dohainik izan beharko da kontsumitzaileentzat, eta beraz, ez dio inolako gastu edo komisiorik ekarriko. Gainera, kontu korrontearen gaurkotzea ere dohainik egin beharko dizu zure banketxeak 2002ko urtarrilaren 1ean.

DISKAK



«Nil»

NIL

Cooperación Records

Lasarte-Oriako hardcore talde honek lehendabiziko lana du hau, taldearen izen berekoa. Lau taldekideek Trintxerpeko Buenawista lokalean entsaiatzen dute gaur egun, eta Naun eta Ipar Haizeak taldeetan arituak dira Nil-ekin hasi baino lehen. Esperientzia badute, beraz, eta hori nabaritzen da CDak dituen zortzi kantuetan. Hardcore azkarra oinarri gisa hartuta, bertze estiloei ere ez

diete muzinik egiten gipuzkoar hauek: horrela, dub ikutuekin leutzen dituzte abesti batzuek. Rage Against the Machine estatubatuarren estilora ere hurbiltzen dira zenbait erritmo eta doinutan. Erran behar da BAP! taldeko gitarjolearekin grabatu dutela diskoa, aurtengo apirillean hain zuzen ere, Andoaino Jomes estudioetan. Euskaraz abesten dute.

MENDI IRTEERAK

ELIZONDO

- **Azaroaren 21ean** Irurita-Azaldegi. Baztango Mendigoizaleak.
- **Azaroaren 28an** Arraioz-Larratzu. Baztango Mendigoizaleak.

'ETXEAK ETA BIZITZAK'

SARA

- **Azaroaren 22an** "Borda izena duten etxeak Saran" mintzaldia. Xabier Elozegi. Arratseko 8,30etan, Herriko Etxean.

ETXALAR

- **Azaroaren 24an** "Etxe bioklimatikoak" mintzaldia. Herriko Etxean, arratseko 8etan.

BERA

- **Azaroaren 26an** Kontzertuak Alizateko ostaluetan. Arratseko 9etan, Lisabö (Bidaxkan), 10etan High Fidelity International (Puin), eta 11etan Komando Kaltzontzilo (Zizkan). Ondotik Joseba Dja.

SARA

- **Azaroaren 28an** "Eneko Bizkai eta Maria Lorka" antzerkia. Omordian, 10etan.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfpora. deitu behar da

- **Azaroaren 15etik 21era** Igantzi, NARBarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leitza eta Goizueta.
- **Azaroaren 22tik 28ra** Lesaka, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.
- **Azaroaren 29tik abenduaren 5era** Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ADOS

IRURITA.
- Lur eremu eraikigarria salgai.
☎ 948 451 841

BERA. Pisua salgai. 3 logela, bi bainu, egongela eta sukaldea. Mobleztatua. ☎ 948 630 946 (eguerdiko 2-etatik atzineran).

BERA. Pisua salgai. 3 logela, bi bainu, egongela eta sukaldea. ☎ 609 402 443.

LEITZA. Pisua salgai, prezio onean. ☎ 948 510 484.

ARANTZA. Baserria salgai, bizitzeko prest. 25.000 m²ko lur-eremuarekin. ☎ 943 633 482.

ELGORRIAGA. Pisua salgai. 100 m² + 31 m²ko ganbara. Kalefakzioa eta sukaldea guziz hornitua. ☎ 948 637 571.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
☎ 948 451 841

☎ 948 451 841

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

BERA. Pisua hartuko genuke errentan. ☎ 943 398 286 (goizez).

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

IRUÑEA: Pisu berria osatzeko pertsona bat behar da Milagrosa auzoan. Gela individualak, 22.500 pta hilean. Unibertsitatetik hurbil, 5 minutu oinez. ☎ 948 635 045.

LURRAK/ORUBEAK

107 SALDU

LESAKA. Biurranan lur-eremua salgai, Matxitenea ondoan. ☎ 948 637 121.

ZERBITZUAK

208 BERTZELAKOAK

EGAeta 5. mailako euskara titulua prestatzeko klase partikularrak (gainontzeko mailak ere bai). ☎ 948 630 557 (eguerdi eta gaue-tan).

LANA

302 ESKAINTZAK

Planoak interpretatzen eta soldatzen dakien pertsona behar da. Galdaragintza eta muntaiaz jakitea beharrezkoa. Bera eta Mugairi arteko norbait. ATM S.A. enpresa. ☎ 948 637 411.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Rover 214 Si 16 v salgai. ☎ 948631 351 edo 606 102 966.

Golf GTI serie III salgai. Egoera onean. ☎ 948 630 165.

Bigarren eskuko **Suzuki Santana** erosiko nuke. Lur-zea balitz hobe. ☎ 948 599 170 (arratsaldeko 5etatik aitzinera. Margari).

Citroen Saxo 16 v salgai. NA-AY, berri-berria. ☎ 948 637 283.

MOTORRA

502 TAILERRAK

BERABI tailerrak
☎ 948 631 445-BERA

Mitsubishi 2.5 TD merkea, Nissan Vanette.

ETORRI ETA IKUSI NISSAN PRIMERA BERRIA

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

- Peugeot 306 TD, Terrano II,
- Astra GSI, Clio D,
- Suzuki Long Body TD,
- Suzukiak aukeran.

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

TTIPI-TTAPA da gure herrietan gehien zabaltzen den komunikabidea, eta gainera...

GOIZUETAKO UDALA

ARAU SUBSIDIARIOEN HASIERAKO ONESPEN

Goizuetako Udalki, mila boeretzin hamabazter eguneko Bikara Arantzia Puntuairen hasierako onespene eta den edukinaren zatiarik.

42 Art. Lurperu urbanizazioan berriakoa.

Titulua on dago eta etengabeko bakarrak jasotzeko dute bala. Hiritzari buruzko 10/94 Foru-kanonaren eta aldiak 1999/10/23...

OP. DE BERTZIZARANA

AL DEL PROYECTO DE EN LEGASA

en sesión ordinaria

LEITZAKO UDALA

LEITZAKO UDAL IGERILEKUEN USTIAPENA. 1999KO UDAKO DENERALDIA

TTIPI-TTAPA

- Modulo eta aleko: **0,23 Pta.**

DIARIO DE NAVARRA

- Astez **5,7 Pta.** / modulo eta aleko
- Igandea **4,6 Pta.** / modulo eta aleko

EL DIARIO VASCO

- Astez **5,3 Pta.** / modulo eta aleko
- Igandea **5 Pta.** / modulo eta aleko

GARA

- Astez **10,3 Pta.** / modulo eta aleko
- Igandea **7,6 Pta.** / modulo eta aleko

DIARIO DE NOTICIAS

- Astez **13,8 Pta.** / modulo eta aleko
- Igandea **11,6 Pta.** / modulo eta aleko

EGUNKARIA

- Astez **28,8 Pta.** / modulo eta aleko
- Igandea **24,7 Pta.** / modulo eta aleko

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Bi miga blonda arrazakoak salgai. Ernari daude. Behi gorria salgai, bere aretxearekin. ☎ 948 580 589.

Cocker Spaniel inglesaz kurkumeak salgai. Zuri eta beltzak. Pedigriarekin. ☎ 948 637 432/948 637 519.

Ernari dauden ahuntzak salgai. Ederrak. ☎ 948 637 772.

Boxer arrazako zakurkume arrak salgai Beran. ☎ 943 283 065 (goizez).

Ardi gizenak erosten ditugu hiltzeko. ☎ 948 450 160.

Cocker Spaniel ingles

DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

arrazako zakur beltza galdu da Lesakako Pagolleta inguruan. ☎ 948 637 432.

Ibanez gitarra salgai, ego-

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

era paregabea, bere maletarekin (30.000 pta). Amplifikadorea (12.000 pta). ☎ 948 581 039.

Bi berogailu-akumuladore salgai. ☎ 948 630 508 (eguerdi edo arratsetan).

Comesa autokargadora salgai, traktore-karroarentzat. ☎ 948 510 013.

Erremolke isoterma salgai, 750 kiloendakó. ☎ 948 599 008.

Etxeoltz markako zisterna salgai. 4.000 litrokoa. Trakzioa eta bi bonba. ☎ 948 592 016.

Ume bat garraiatzeko bigarren eskuko silleta erosi-ko nuke. Arrue markakoa, Olimpiada modeloa. ☎ 948 631 136.

Bigarren eskuko liburuak erosikonituzke. ☎ 943632 818.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Donamariako Hitachi "Eneko"ri, azaroaren 24an urteak beteko dituelakoz, zorionak! Zuk dakizun bi lagunentzat. Doneztebeko ferietan behinpin KO-PA ordainduko duzu ez??

Zorionak Goizuetako Ixabeletabere seme Xabierre-ri, azaroaren 19an urteak betedutuztelako. Xabierrek 3 eta amak gehiago. Juan Mari eta Ibañen partetik.



ETXALARKO UDALA

HASIERAKO ONESPENA MENDIKO PISTA ETA BIDEEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZARI


Etxalarko Udalak, 1999ko urriaren 28an egindako bilkuran, eta gehiengo absolutuaren quorumarekin, mendiko pista eta bideen erabilera arautzen duen ordenantza hasiera batez onestea erabaki zuen.

6/1990 Foru Legearen 325. artikulua dioenaren arabera, espedientea jendaurrean paratuko da hogeita hamar lanez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina, epe horretan egoki jukatzen diren erreklamazio, enura edo ohartarazpenak aurkeztu ahal daitezken.

Etxalarren, mila bederatzehun eta lauretan hogeita hemeretzi azaroaren bial.

Alkatea,

*Etxalarren, 1999ko azaroaren 2an.
ALKATEA, Miguel M^o IRIGOIEN*



Zer izanen dut Gida honetan?

DEN-DENA

Den-dena eskura eduki nahi baduzu, GIDA honetan aurkituko dituzu inguruotako ofiziale, komertzio, lantegi eta zerbitzu guzi-guziak. Informazio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko erraxago antolatua, eta guzi hori, etxetik mugitu gabe.

telefono gida 2000

Inguru honetako etxe guzietan zure negozioaren berri izatea nahi baduzu, jar zaitetz gurekin harremanetan **lehenbailehen** eta milaka pertsonen irakurriko dute zure mezua.

ttipi-ttapa • Herriko Etxeko Plaza, 1 • E-31780 BERA

(+34) 948 63 11 88



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeke, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobra bat eta helbidea bidali.



Azaroaren 10ean **Patxi Irigoien Goiak** urteak egin ditu. Auniz urtez bere ama eta anaiaren partetik.



Xabi Osese azaroaren 25ean 12 urte beteko ditu. Zorionak Saioa eta Asierreren partetik.



Izaskun Leku-berria gazteluarra 2 urte bete ditu azaroaren 5ean. Zorionak aita, ama, Gazteluko familia eta ahizpa Eli-xaberen partetik.



Izaskun Leku-berria gazteluarra 2 urte bete ditu azaroaren 5ean. Zorionak Arantzatik, izeba Ainhoa eta Jose-xoren partetik.



Berako **Trini eta Alazne** amabibobek 76 eta 15 urte beteko dituzte azaroaren 27an. Zorionak familiaren partetik.



Jennifer Zelaieta Lazkano beratarra 3 urte bete ditu azaroaren 9an. Zorionak zure familiaren partetik.



Marixux Zubieta Portuk azaroaren 24an 22 urte beteko ditu. Zorionak Xarbuxa! Baina biberoi hori gurea dun!



Iker eta Joar Tainta Noble lesakarrak 13 eta 7 urte bete dituzte azaroaren 12an. Zorionak maitasunez, ama eta aitaren partetik.



Unai Alzugarren Arregi etxalartarrak azaroaren 15ean 4 urte bete ditu. Zorionak Maitane, ama eta aitaren partetik.



Josetxo Telletxea arraioztarrak urteak bete ditu urriaren 8an. Zorionak familiaren partetik, bereziki iloba Joneren partetik.



Jon Aranbilet Galtzagorri sunbildarrak azaroaren 4an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu auniz familiaren partetik.



Uxe Matxinenena urroztarrak urtea beteko du azaroaren 19an. Zorionak guraso, ataxki-amaboi, osaben eta lehengusuen partetik.



Mairer Mari-etzukurrena irundarrak azaroaren 7an 3 urte bete ditu. Zorionak guraso, osaba eta lehengusuen partetik.



Maixux Zubieta Portuk azaroaren 24an 22 urte beteko ditu. Zaindu 'zahartrosi' hori. Zorionak eta auniz urtez! Berako etxeokoa.



Miren Itxaso Arretxea Bidegain beratarra 10 urte beteko ditu azaroaren 22an. Zorionak bere familiaren partetik.



Unai Madariaga Iribarren urroztarrak 8 urte beteko ditu azaroaren 20an. Zorionak Xabier, Ariz eta gurasoen partetik.



Eneko Esparza Chuecak azaroaren 23an 3 urte beteko ditu. Zorionak Iratxe, Fermina, Luzio, Mabi eta gurasoen partetik.



Beñat Mitxelena Sagastibel-tza beratarra 24an 3 urte beteko ditu. Zorionak Lesakako amaboi eta osabazibeen partetik.



Iñaki eta Jon Pikabea Larralde lesakarrak 9 eta 5 urte betetzen dute azaroaren 20an eta 8an. Zorionak familiaren partetik.



Xabier Santamaria Mitxelenak 2 urte beteko ditu azaroaren 24an. Auniz urtez Lesakako familiaren partetik.



Andoni Cenoz Verdú azaroaren 2an bete ditu 2 urte, eta **Mikel Cenoz Verdú** azaroaren 12an 8. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik. Aupa pitufos!



Maitexu Goia Irazoki beratarra 12 urte beteko ditu azaroaren 25ean. Mox, Lulu eta familia guziaren partetik zorionak!



Martin Otxandorena elgorriarrak azaroaren 19an urteak beteko ditu. Zorionak Lesakako familiaren eta bereziki lehengusuen partetik.



Zorionak Egoitz! 9 urte egin dituzula eta, bederen txupatxus batera gonbidatuko gaituzue, ez! Xoraxuriko bordatik muxu auniz zuretat



Patxi Telletxea etxalartarrak azaroaren 25ean eginen ditu urteak. Zorionak emaztea eta familiaren partetik. Txanpaina espero dugu.



Julen Aranburu aurtiztarrak azaroaren 11n bete ditu 3 urte. Zorionak familiaren eta bereziki anaia Iñakiren partetik.



Iñe Cambra Rodriguez 4 urte beteko ditu azaroaren 22an. Zorionak pottok! Segi bezain sorgintxo izaten. Amaboi, aitaxo eta familia.



Eduardo Etxebeste Yanci 18 urte beteko ditu azaroaren 21ean. Zorionak eta auniz urtez, 'pamplonica'. Etxekoen partetik.



Ana Sarratea Arregik 5 urte beteko ditu azaroaren 20an. Zorionak eta muxu haundi bat guraso, Gorka, izeba Julieta familia guziaren partetik.



Garazi Urreaga Otxoteko burlatarrak azaroaren 28an 6 urte beteko ditu. Auniz urtez eta muxu bat etxeokoen partetik.



Xuban Etxegia Etxebeste sunbildarrak azaroaren 30ean beteko du urtea. Auniz urtez gure morroskiloari. Musu potzolo-potzok! Familiaren partetik.



Jabiertxo Arriola Perezek 5 urte beteko ditu abenduaren 5ean. Zorionak familiaren partetik.



Burlatxo Julen Mindegia Mariezurrenena azaroaren 29an urtea beteko du. Zorionak eta muxu bat gurasoen partetik.



Beñat Mitxelena Sagastibel-tzak 3 urte beteko ditu azaroaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.

Mabel Etxarte Agesta lesakarrak azaroaren 19an beteko ditu urteak. Zorionak Beñat eta Olatzen partetik.



KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko moleak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

Laster armairu
enpotratuen
erakusketa berria
Bittirian



**LOGELAK
EGONGELAK
TRESILLOAK
KUTXAK
BESAUUKIAK...**

ERAKUSKETA Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637 780

LESAKA

Bera.

- Etxe bat berritzeko.
- Etxea 14.000 m²ko lur-eremuarekin.
- 3. pisu bat salgai, Eztegaran.
- Baserri bat bere lur-eremu guzietan.
- Pisu (igogailuarekin) erosi nahi da.
- 80 m²ko bajera salgai Eztegaran.
- 200 m²ko bajera salgai. 17 milioi.
- 1.300 m²ko nabe pabiloia salgai.

Lesaka.

- Etxe elkar-atxikiak, orain egitekoak.
- Nabe-pabiloia, 400 m²koa, salgai edo errentan.
- Bajera salgai Erosle ondoan.
- Baserri bat 50.000 m²ko lur-eremuarekin salgai, lau etxebizitza egiteko modukoak.

Etxalar.

- Etxe elkar-atxikiak. Azkena.
- Harrizko etxea salgai, terrenoarekin.
- Baserri moldatua, bere lur-eremuarekin.
- Baserri batzuk, terrenoarekin edo gabe, nekazal turismo-rako aproposak.

Arantza.

- Pisu moblezatua salgai, arras polita: 9 milioi.
- Pisu salgai, garaje, soto eta ganbarearekin.
- Pisu salgai. 7,5 milioi.

Igantzi.

- Baserria salgai, lur-eremu zabalarekin edo gabe.

Sunbilla.

- 57 m²ko bajera salgai, erabat prestatua.
- Baserria salgai, bere lur-eremuarekin.
- Lur-eremu eraikigarria salgai, herrian. 4 milioi.
- Pisu moblezatua errentan emateko.

Doneztebe.

- Pisu salgai herrian, bizitzaren jartzeko prest. 10 milioi
- 3.000 m²ko bi lur-eremu polit, eraikigarriak.
- Vasconia izan zen bajera salgai, negozioa jartzeko prest.
- Bajera batzuk salgai herrian bertan.
- Bajera batzuk errentan emateko.
- Osasun Etxearen ondoan azken apartamentua.



ADOS

Julian Izura Nuin

Telefonoak: 948 451 841 • 607 978 656 • e-mail: julitu@zaros.com

Parrokia 9, bajera • **DONEZTEBE**

- Udaletxe ondoan azken bi pisuak, 120 m² eta 170 m²koak.
- Aparango 200 m²ko nabe-pabiloia errentan. Merke.

Elgorriaga.

- Pisu bere ganbarearekin, berogailuarekin, erabat hornitua.
- Pisu bajera haundi batekin, arras rustikoa.
- Lur-eremu eraikigarria, erabat eguzkitsua.
- Borda salgai, lur-eremuarekin. Ongi kokatua.

Ituren.

- Azken bi pisu berriak salgai.
- Lur-eremu salgai, etxea egiteko.

Zubieta.

- Etxe haundi bat salgai.

Eratsun.

- Etxe bat salgai.

Lekunberri.

- Pisu batzuk, lur-eremu bat eta etxe batzuk.

Donamaria.

- Lur-zati eraikigarriak, 300 m²tik goiti.

LESAKA:

- 24 etxe elkar-atxikiak, orain egitekoak.



**SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURIAK**

Etxe, komertzio, auto, bizitza edota jubilazio aseguruak. ESKATU AURERONTIA KONTU MEZURIK GABE

Igurin.

- Lur-eremu pare salgai, eraikigarriak. Merke.

Urrotz.

- Baserri berritua lur-eremuarekin.

Beintza.

- Lur-eremuak. Herritik hurbil.

Labaien.

- Lur-eremu eraikigarria, ongi kokatua.

Legasa.

- Bi lur-eremu. Eraikigarriak.
- Pisu pare salgai, merke-merke. 7 milioitik goiti.
- Lur-eremu erosi nahi dugu, baratzea jartzeko.

Mugairi.

- Pisu salgai.
- Lur-eremu eraikigarriak salgai.
- Segiduan egitekoak diren pisuak salgai.

Iurita.

- Lur-eremu salgai, etxe bat egiteko.
- 7.000 m²ko belagia salgai.

Elizondo.

- Pisu polit bat Santiago karrikan. 120 m², hiru aldetara ematen du.
- Pisu batzuk errentan emateko.
- Pisu bat erabat prestatua Giltxaurdi karrikan.

Erratzu.

- Etxe bat bizitzaren jartzeko prest.

Iruñea, Irun eta Donostia.

- Zerbait erosi edo saldu behar baduzu, deiguzu konpromezurik gabe.

Batzuk.

- Kartaran aukera gehiago ditugu. Kontratuak egiten ditugu. Borda erosi nahi dira, ez du inporta egoera eta tokiak.



GURE MENDEA

XX. MENDEKO EUSKAL HERRIA LIBURU+CD-ROM ETA MAHAI JOKOAN



FAMILIA ETA LAGUNARTERAKO
EUSKAL "TRIVIAL"A

*Inbertsio
eder bat!*



XX.MENDEKO EUSKAL KULTURA
Liburu+CD-ROMean



ARGIA^{ren}
eskutik



ARGIA n salgai • Tel.: 943 37 15 45 • denda@argia.com

EHIZA eta ARDOARI BURUZKO VII. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

AZAROAREN 5etik 28ra

Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortziritako 21 jatetxek eskainirik uso, basurde, orein, erbi edo oilagorrez osatutako menuak aurkituko dituzu, betiko moduan edo era berrietan eginak. Aurten, gainera, Nafarroako ardorik hoberekin lagunduta. Beraz, ezinbertzeko aukera duzu otordu goxo bat dastatzeko.

2.200 eta 3.800
Pta. arteko
menuak
(ardoa eta BEZ kanpo)

Dena den, jatetxe guztiek beren ohiko karta eta zerbitzuak eskainiko dituzte.



JATETXEAK

ALMANDOZ	
Beola.	☎ 948 59 50 02
ARANTZA	
Aterpe.	☎ 948 63 41 79
Burlada.	☎ 948 63 40 27
BERA	
Euskalduna.	☎ 948 63 03 92
Matxiarena.	☎ 948 63 00 33
Zalain.	☎ 948 63 11 06
DONAMARIA	
Donamariko Benta.	☎ 948 45 07 08
DONEZTEBE	
Amezia.	☎ 948 45 00 28
ELGORRIAGA	
Hilarion.	☎ 948 45 00 03
ELIZONDO	
Baztan.	☎ 948 58 10 13
Eskisaroi.	☎ 948 58 00 13
Txokoto.	☎ 948 58 03 49
IGANTZI	
Igantzi.	☎ 948 63 75 02
La Villa.	☎ 948 63 72 90
IRURITA	
Taberna del Fotógrafo.	☎ 948 45 20 87
Olari.	☎ 948 45 22 54
LESACA	
Bereau.	☎ 948 62 75 09
Kasino.	☎ 948 63 71 52
Koxkorta.	☎ 948 62 75 19
OIEREGI	
Hotel Mugaire.	☎ 948 59 20 50
URDZUBI	
Indiano-Barra.	☎ 948 59 90 21

LAGUNTZAILEAK

NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

• Nafarroako Gobernua
Turismo Departamntua

ANTOLATZAILEA

